

uztarria



[AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA]

2007ko abendua ▶ 90. zenbakia ▶ www.uztarria.com


LIBURUEN BODEGA

132.000 LIBURU DAUDE LOIOLAN;
ORAIN ZERBITZUA HOBETU NAHI DUTE

BERTSOLARITZA ▶ Urolaldeko bertsoak berriro entzungai



ONDO PASATU FESTAK!



Abenduak 20 - Txapelen Omenezko Jaialdia
Betharrametán 22:30ean

Abenduak 21 - SANTO TOMAS EGUNA

- 10:00etan - Txistularien diana / Eltziegoko Gaiteroak
- 10:30ean - Eskuzko pilota partida finalak. Frontoi Txikian
- 11:30ean - Itsasiko Ttuntturroen eta Musika Eskolako soinujoleen kalejira
- 12:00etan - XXV. Antzerki Topaketako sari banaketa
 - Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia
 - Baserriko produktuak - Barazki, fruta eta loreak
 - Erakusketa azoka plazan goizean
- 12:30ean - Aizkolariak eta harrijasotzaileak
 - Bertsolariak
- 16:30ean - Erraldoiak, buruhandiak eta dultzaineroak
- 17:00etan - Musika emanaldiak
 - Profesionalen arteko pilota partidak. Izarraitzen



AZPEITIKO UDALA
Festa Batzordea

AZPEITIKO UDALA
Festa batzordea

Tren Museoa



Hamahiru urte bete omen ditu Tren Museoa. Ez deritzot zoriontzekoa denik.

Bitan baino ez naiz izan bertan, eta bietan ez neure gogoz, kanpotar lagunei laguntzearen baizik. Eta mundu hori oso gustuko dudala esango nuke. Santanderrera eta Leonera trenez egin ditut joan-etorriak, hiri horiek eza-gutzeko baino gehiago trenez egitearren bidaiak. Pozik, gainera, eta errepikatzekotan.

Hemen Urolako trenaren genuen. Zaharkitua, berrikuntza handia behar zuena. Baina berritu

ordez kendu egin zuten, Jendearen iritzia bost garaiko agintariei. Kendu, eta kito!

Gero, trenaren maite zutela adierazteko-edo, museoa egitea erabaki zuten. Trenaren aurka ez, garapenaren alde baleude bezala! Biak kontrajarriak balira bezala! Trena antzinako zerbait bihurtuz; museo bihurtuz, alegia. Trenak ezin ekar baitzezakeen garapenik.

Horrela sinestarazi nahi izan ziguten. Eta museoa Urolako trenaren kentearen justifikazio lazgarri moduan sentitu genuen askok.

Orain museoaren zuzendariak trenaren kentea disparte izan zela adierazi du. Eta askok esango didate museoa zabaltzea gero-ko erabakia izan zela, eta ez zuela izan trenaren kentearekin zerikusirik.

Eta ez diot horrela izan zenik, baina bai nik horrela sentitu nuela. Urolako trenaren kentea eta museoa zabaltzea lotu-loturik daude. Azken batean, Urolako trenaren kentea zabaltzeko museoa. Eta horrek mina, min handia, sortzen dit.

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko

Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, beheak, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 90.a (2007ko abendua)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. EREGI

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Enekoitz Esnaola

Oharra. Uztarririk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

[u-iritzia]

08 Inkesta. Herritarrek

Santo Tomas egunean baserritarrez janzteko ohiturari eusten al diote?

10 Iritzia. San Silbestre

lasterketako antolatzaileek abenduaren 31n izaten den probari errepaso egin diote.

[u-mamia]

12 Futbola. Herriko

futbolari askorekin ari da denboraldi honetan Lagun Onak-eko mutilen lehen taldea.

14 Klik. Juan Aizpuruak

gabonetako jaiotzarekin zaletasun handia du.

24 Bertsoak. Urolako

bertso zaharren bilduma argitaratuko dute berriro.



[u-jakiteko]

26 Txirrindularitza.

Urola Ikastola Txirrindulari Elkartek zilarrezko ezteiak bete ditu. Liburua eta DVDa atera dituzte.

[u-euskara]

36 Aranburu. Maria

Jesus Aranburu Gipuzkoako Euskara eta Kultura diputatu izendatu dute. Egiteko berriaz aritu gara harekin solasean.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Horoskopoa

Lorea hasi berria da gurean lanean. Ohikoa denez, bekadun berriarekin egin genuen lehen solasalditxoan ordura arte zertan aritu zen jakin nahi izan genuen. Eibartarra dela, EHUKo Komunikazio Zientzietako fakultatean laugarren urtean dagoela, inoiz ez zuela pentsatu ere egin kiroletan lan egingo zuenik... Eta bat-batean, denok harrituta utzi gintuena kontatu zuen.

–Hona etorri baino lehen, Debagoieneko aldikari batean aritu naiz praktikak egiten. Horoskopoa egiteko esan zidaten, eta horretan eman ditut azken hilabeteak.

“Horoskopoa egiten?”, galde egin genion, gai horrek bere denbora behar izango duela ohartzeko astia hartzen genuen bitartean.

–Bai, badakizue, zodiakoko atalak hartu eta hilean behin bakoitzari buruz zerbait idatzi behar.

► **HARRIGARRIA.** Bere historia haluzinagarria iruditu zitzaidan. Aries, denbora hartu beharko duzu erabaki zail bat hartzeko. Taurus, urruti ez duzun norbait oso momentu txarra pasatzen ari da eta zure laguntza behar du. Gemini, ernegatuta ibiliko zara burokraziaren esanetara. Cancer, bihotz kontuetan ondo ibiliko zara, lagunaren lorategia maitasunez ureztatzen baduzu. Leo, izaera gogorra duzu eta horrek abantailak eta desabantailak ekarriko dizkizu. *Notejode*, horrela asma daiteke!

Loreak, jakina, ideiarik ez dauka planetak lerrotaturik dauden edo ez, goranzko astroak zer diren, edo batzuk lurrekoak eta beste batzuk uretakoak garela. Horoskopoa egiteko esan zioten, eta bekadun lanean ari denak ez dio inoiz esan behar editore-arduradunari ideiarik ez duela. Bere ardura bakarra kontraesan nabarmenegietan ez sartzea omen zen, hilabetero orrialdea betetzea, batzuk kezkatzea eta beste batzuei munduko hoberenak direla esatea.

Loreak kontatu zuen errukia eta grazia sortzen

zitzazkiola barren-barrenean irakurleak bere horoskopoiari begira ikusten zituenean. Posible al da hain sinpleak izatea? Halako edo honako egunetan jaiotzeak garrantzia duela sinesteak ez ote du azpian beste esanahi bat, behar bat? Multzoka aurre-determinatuta gaudela pentsatzen duenik ba ote da? Jendeak sinesten al ditu benetan horrelako txorradak?

Harrezkero etorkizunari buruzko zalantzaren bat dugun bakoitzean, Lorearengana jotzen dugu. Igarle rola gustura hartu du eta horrekin jolasean aritzen gara.

–Aurten gabonetako loteria 067an bukatuko da–, esan zidan, neuk galdetu gabe.

Eta pentsatzen al duzue zer izango litzatekeen Loreaigarleak hori esan eta gero, zenbaki horietan amaitzen den loteria parean suertatu eta nik, egoskor, erosi ez... eta gero tokatuko balitz?!

Nik garaiz abisatu dizuet. Aurreko bi zenbakiak ez dakizkit –hurrengo urterako gehiago saiatuko naiz–, baina 067an bukatuko dela seguru nago.

Eta neurri batean behintzat zure bizitza alda dezakeen artikulu hau bukatzeko, neuk ere, Lorearen teknikak erabiliz, horoskopoko atal bat egiteko tre-bezia badudala erakutsi nahi dut. Piscis jarriko dut izenburuan baina, komeni bazaizu, zuk zeurea jarri. Berdin balio du.

► **IRAGARPENA.** Piscis (otsailak 23-martxoak 20). Aukerak oso gutxitan gertatzen dira bizitzan, eta hau da zurea. Dirua ate joka duzu, eta zuk ez duzu etxeko txirrina entzun nahi. Utzi behingoz zalantzak eta dituzunak eta ez dituzunak joka itzazu loterian. Lana, *porsako* hartzera. Etorkizun oparoa izango duzu 067 bukaerari esker. Edo damutuko zaizu. Disdiranean galdetu eta, ez badute, beste nonbaiten saiatu, topatu arte.

Gaur *Gara* egunkariarekin batera *Zazpika* jaso dut, igandeetako gehigarri abertzalea, aurrerakoia, askok gustuko duena. 63. orrialdean horoskopoa dago. Etorkizuna kilkeraren potroak baino beltzagoa da.

Badakizue zer esaten dizuedan: erabat gaixorik gaude.

HILEKO ESALDIA ▶

Eros ezazu, Estatuak eskertuko dizu



ASOCIACION DE COMERCIANTES DEL UROLA MEDIO

UROLA ERDIKO MERKATARIEN ELKARTEA

**GABON OPARIETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA
GURE DENDETAN DUZU**

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON



Miren Larrea

Ikertzaile suediarren lekzioa

Aipatu izan dugun moduan, bada ekonomia eta enpresaren inguruan beste guztien gaindik indartzen ari den kontzeptu bat: berrikuntza.

Jadanik ez da nahikoa beti egin duguna ondo egitea. Gauza berriak, desberdinak egitea eskatzen digute. Adituen hitzetan, horretarako dugun aktiborik garrantzitsuena jakintza da, prozesurik garrantzitsuena, ikasketa eta estrategia egokia, elkarlana.

▶ **JAKINTZA.** Nola gabilta azpeitiarrok etorkizuneko giltzarri omen den aktibo horrekiko, jakintzarekiko? Kuadrilan, soziedadean, kalean eta, nola ez, lanean entzuten dugunaren arabera, zerbait badakigu altzarigintzaz eta altzairugintzaz; elektretresna nahiz labe handiez eta galdara txikiez; makinariak, ekipo hidraulikoez, erremintez eta orrialde hau bete arterainoko beste hainbat gauzez. Nahikoa ote da berritzaile izateko?

Auskalo! Eskura ditugun datuak, batez ere, formazio arautuari dagozkio, baina hori ez da gure jakintza-puzlearen piezetako bat besterik. Dena dela, has gaitezen bertatik. Hori bai, pixka bat pentsarazteko, galdera moduan azalduko dizkizuet datuak. Hiru erantzun posibleetatik, bakarra da zuzena (egunkarietan bezala, erantzunak orrialdearen azpialdean daukazue).

1. Goi-mailako ikasketak dituen 16 urtez gorako biztanleria Donostian %25 da, Zarautzen %18 eta Arrasaten %15. Zenbatekoa da Azpeitian?

- a) Zarautzen parekoa, %18.
- b) Arrasateren gainekoa, %16.
- c) Hiruren azpikoa, %12.

2. Lehen hezkuntzako ikasketak dituen 16 urtez gorako biztanleria Arrasaten %25ekoa da, Donostian %20koa eta Zarautzen %19koa. Eta Azpeitian?

- a) Zarautzen azpikoa, %18.
- b) Hiruren gainekoa, %32.
- c) Arrasateren parekoa, %25.

3. Alfabetatu gabe dagoen edo ikasketarik gabeko 16 urtez gorako biztanleria Arrasaten %8 da, Donostian %6 eta Zarautzen %5. Eta Azpeitian?

- a) Guztien azpikoa, %4.
- b) Donostiaren parekoa, %6.
- c) Arrasateren gainekoa, %9.

▶ **KINIELA.** Zer moduz kiniela? Ikasketarik gabeko edo alfabetatu gabeko biztanleriaren pisua Azpeitian inguruko eskualde gehienetan baino txikiagoa da, baina lehen hezkuntza dutenen kopurua, altuagoa. Bestalde, goi-mailako ikasketak dituztenak ere gutxiago dira gurean. Baina araututako ikasketa prozesu hauek ote dira garrantzitsuenak?


Duela egun batzuk Donostian izan genuen B.A. Lundvall, 70 urteko ikertzaile suediarra, berrikuntza sistemetan aditua. Haren aurrean gu, gure blok eta boligrafoak eskuan, berritzaile izateko zer egin behar dugun entzun orduko dena apuntatzeko prest. Gure aurreikuspenetan zientzia eta teknologia kontuak, patenteak, berrikuntza politikak, I+G+b... Ba al dakizue zer esan zigun? Begiratze-ko inguruan dugun jendeari: nondik gatozen, nola mugitu garen toki batetik bestera eta bidean zer ikasi dugun. Azpeitiar bakoitzak geure bidea egitean ikasi dugun guztia neuritu beharko genuke, beraz, eta ez eskolan ikasi genuena soilik.

Lundvallen hitzetan, berrikuntza gaitasuna lanari buruzko erabakiak hartzeko askatasunari dago lotuta. Gure lanaren helburua eta hori lortzeko modua erabakitze askatasuna dugunean, asko ikasi eta berritzen omen dugu. Gutxiago helburua zein den beste norbaitek esaten digunean, nahiz eta nola lortu geuk erabaki. Eta akabo gure ikasketak eta berrikuntza, gure lanari buruzko bi erabaki horiek beste norbaitek hartzen dituenen.

▶ **AZKEN GALDERA.** Lehengo galdeketeri lau garren galdera gehitzea proposatzen dizuet:

4. Eskandinaviarrek lanean bai helburua eta bai lortzeko moduari buruz erabakitzen omen dute. Ingeleseki eta irlandarreki helburua definituta omen datorkie, baina nola lortu erabaki dezakete. Espainian eta Italian, adibidez, ez bata eta ez bestea. Eta Azpeitian?

Erantzunak. 1.c, 2.b, 3.a, 4.?



alde zaharra
Aspetik
alde zaharreko
merkatarien elkartea

Gabon Zoriontsuak

agirre oparidenda - erdi kale 1 - tel: 943 811325

ana mari egaña jantzi denda - santiago kalea 10, tel: 943 813785

azkue jantzi denda - erdi kale 7 - tel: 943 811500

gemma kinkilidenda - santiago kalea 10 - tel: 943 151805

iturralde iturgintza - eliz kale 12, - tel: 943 811212

furundarena oinetakoak - erdi kale 9 - tel: 943 811143

gotain lurrindegia - erdi kale 3 - tel: 943 814358

jone eta maikar estetika zentrua - julian elorza 5 - tel: 943 811898

jotaldi kirolak - erdi kale 15 - tel: 943 814600

lida jantzi denda - erdi kale 3 - tel: 943 811264

martina isasti jantzi denda - julian elorza 5 - tel: 943 812068

natura belardenda - enparan kale 15 - tel: 943 150931

torrealdai aholkularitza - iberotarren pl 7 - tel: 943 150509

urrestilla jantziak - erdi kale 6 - tel: 943 811800

Egin zaitetz bazkide 943 81 08 95



Moxpit & Txilbor ▶ Xanti Rodriguez



Hau ▶



Higinio Oiartzabal

Etxebeltz-Izarra

Jakin badakit idatziko dudana alfer-alferrikakoa izango dela, dena egina edo egitear dagoela baina, hala eta guztiz ere, esan beharra daukat (nire isiltasuna konplizitate bihur ez dadin).

Zitu bizian eraikitzen hasiak diren Etxebeltz-Izarrako etxebizitzek –208 babes ofizialekoak eta 112 askeak–, ia Loiola atariraino beteko dute etxez hiribide ondoko alde oso bat. Gipuzkoa barnealdean dugun ingururik eder eta berezkoenak duen xarma galduko du.

Ez al zegoen hori dena beste era batera egiterik? Bi aldera hainbat orube edo terreno egonda (horren faltarik ez da, behintzat), ez al zen posible errepidearen bi alboetako lehen lerroak errespetatu ahal izatea, eta orain arteko ingurumena errespetatzea?

Egun hauetan Ordizian protestan dihardute Oiangu naturgunean egin nahi duten aisialdi egitasmoaren aurka (golf zelaia barne). Obra inguruan herri kontsulta eskatu dute.

Oraintsu jakin dugu Zumarragako Antiguako Baseliza inguruan eraikuntza bat jasotzeko egitasmoa dagoela (hainbat zerbitzu emateko helburuarekin: jatetxea, taberna, ostatua, erakustokia eta abar). Herriar batzuk berehala hasi dira izenak jasotzen, Udalari iritzia eman eta parte-hartzea eskatuz, egitasmo hori proportzionala eta herriarrek onartua izan dadin. Eta hori, eraikin bakar bat dela.

Hemen 320 etxebizitza eraikiko dituzte babestu eta zaindu beharreko gunean, eta isiltasuna da nagusi herrian. Erabiltzen ditudan hedabideetan behintzat, ez dut irakurri edo entzun inoren kezurik, ez eta Loiola zaleenik ere. Beraz, denak kontentu.

Barkatu, baina ni ez! Alferrik bada ere, nire desadostasuna plazaratu nahi dut.

Galdetuz ▶

Santo Tomas egunean baserritarrez janzten al zara?

MIKEL SUBINAS ▶

azpeitiarra



“Egunez baserritar jantzi tradizionala janzten dut, baina dantza sueto txapelketarako

aldatu egiten naiz: txaleko granatea, harizko alkondara...”

AINHOA MAIZ ▶

azpeitiarra



“Blusa granatea, arraiadun gona eta harizko mantel txuria janzten ditut. Painelurik ez dut

erabiltzen buruan, baina amonia moinua egiten dut sarearekin”.

XANTI AGIRREZABALA ▶

azpeitiarra



“Txikia nintzenetik janzten naiz baserritarrez. Guztira hiru jantzi ditut: bi

txapelketakoak eta bat paseokoa. Oso janzkera desberdinak dira euren artean”.

MIREN IBARZABAL ▶

azpeitiarra



“Santotomasetan janztea asko gustatzen zait. Baserritar jantzi ugari dut etxean,

gehienak zuri-beltzak. Pololoak eta azpiko gona dira baserritar jantzitik gehien gustatzen zaizkidan osagaiak”.

Apunteak ▶

GORA.

Modan jartzen ari da San Silbestreko lasterketa, gero eta jende gehiagok irteten du, giroa mundiala egoten da, baina ez da ahaztu behar egun berean —urte zahar egunez— eta goizez Lagun Onak Mendi Bazkunak Aizkorriara irteera antolatzen duela; tradizio handiko ekimena da.

BEHERA.

Mikel Azkune eta Eneko Etxeberria azpeitiarrak ez dituzte epaituko *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoan (2003ko urrian izan zen operazioa), baina bai zortzi lagun. 2003ko otsaileko itxierako auziak ere zabalik segitzen du. Mugitu beharra egongo da berriro, epaiketak laster izango dira-eta.



Eneko Etxeberria eta Mikel Azkune, 2004ko urriaren 24an, Azpeitian, harrera egin zietenean. UZTARRIA

GALDERA.

Urte batzuk dituzten etxeen fatxadak pintatzen ari direla-eta, ez al da ari herria kolore biziagoa hartzen?

Ba al dakizu... ▶

...Udalak aurten kalean gabonetako argiak %33 gutxiago jarri dituela, energiaren kontsumoa eta dirua aurrezteko asmoz?

Zer dio? ▶ Jose Antonio Zulaika (XEYE Atletismo Taldeko kidea)

San Silbestre, lagunarteko proba

San Silbestre Eguneko lasterketa antolatzen dugun zazpigarren urtea da aurtengoa. Ordura arte, Urola bailarako lasterkariok inguruko herrietako lasterketetan parte hartzen genuen abenduaren 31n. Azkenean, Azpeitian antzeko ekimena antolatzeari pentsatu genuen.

Urteko azken eguneko lasterketa urtetik urtera herriarren artean errotzen joan den ekimena bilakatu da. Lehen urtean 550 bat parte-hartzaile atera ziren korrika; joan den urtean, berriz, 800 bat lagunek hartu zuten parte. Izan ere, lasterkarako afizioa oso handia da inguruotan. Loiolako hiribidean korrika zenbat jende ibiltzen den ikusi besterik ez dago. Behobia-Donostian bertan, esaterako, inguruko herrietako ia 600 lagunek hartu dute parte aurten.

2007ko lasterketa oraindik eta herrikoia izango da. Orain arte, lehenengo bostei ematen genien

diru saria, baina aurten lehenengo hamar mutilak eta lehenengo hamar neskak sarituko ditugu. Sari gehiago ere banatuko ditugu, zozketa bidez. Guztira, parte-hartzaileen %25 saria eskuratuta itzuliko dira etxera.

Nesken partaidetzak urtetik urtera gora egin duela azpimarragarria da. 2006an parte-hartzaileen %24 neskak izan ziren. Aurrera begira gure erronka lasterkarien %30 neskak izatea da.

Oro har, Azpeitia oso leku egokia da horrelako proba bat antolatzeko. Gainera, herrigunetik pasatzen den zatietan jendeak asko animatzen du. Erdi kalean, adibidez, egundoko giro ona egoten da. Nire ustez, urtea agurtzeko modu polita da lagunarteko lasterketa batean parte hartzea. Izan ere, egun horretan lehiakortasunaren gainetik egoten da lagunarteko giro ona.

Ehun urte gure artean...

Olazko Ermita inguruan dagoen *Etxe txiki*-ra 1905. urteko ekainaren 12an iritsi ziren. Hori izan zuten lehen bizilekua, gure artean. 1909. urtean zabaldu zuten gaur egun ezaguna dugun etxe nagusia, garai batean institutuko heziketa leku edo nobiziatua izan zena. Dolores Sopena institutuaren sortzaileak —Almeriako lurretan jaiotako emakumea da—, San Inazioaren espiritualitatea eta gogo-jardunak biziki estimatzen zituelako bihurtu zuen Loiola ingurua institutuaren oinarri. Elkarreko kide izango zenak, San Inazioaren jaiotetxeko itzalpean hezi nahi zuen, haren espiritualitatea barnera zezaten.

Gaur egun, 30 bat lagun bizi dira Olatz inguruko etxean. Emakumezkoak dira guztiak. Euskal herritarrek horietako batzuk, espainiarrak gehienak. Adinean aurrera doazenak ia denak. Horietako asko eta asko, bizitza han eta hemen eskaini ondoren, gure ingurura etorritakoak dira. Elkar laguntzen eta babesten dute, eta institutuko ateak beti dituzte zabalik lagunentzat.

Olazko Ermitaren zerbitzuan, eskola ematen, etxeko lanetarako emakumeak prestatzen, ezkonduen taldeak animatzen... ezagutu izan ditugu urteetan. Haien bizitzak —gaur egun isilagoa eta ezkutuagoa bada ere— eta ahaleginak helburu, asmo eta ardatz nagusi bat izan dute: bizitza langilegoaren zerbitzura eskaintzea, langilegoaren bizkortze eta ebanjelizazioa sustatuta. Halaxe diote duela ehun urte onartu zuten Institutuko Lege Nagusian ere: "Institutuak bizkortze eta ebanjelizazio zerbitzu bat eskainiko dio langilego behartsuari, Jainkoarengandik eta Elizarengandik urrutiratuta daudenen artean bereziki. Gizon eta emakumeen arteko harremanak anaiakoragoak izan daitezen lan egingo du, elkarren artean urrutiratzen gaituzten liskarbideak gainditzen lagunduta".

◀ Eta beste



Kepa Susperregi



EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

anagrama eta logotipoa

karalogoak, kartelak, aldizkariak...

sinaletika: errozuluak, banalak...



Isilik egon izan banintz



Kepa Urbietta

Igor, maitea! "Hori hitz egitea-gatik gertatzen zaik". Askotan esan ohi diagu tankera horretako esaldiren bat, zerbaitez jardun eta gertatzen denean. Esaldi hori bete egin duk, oraingoan. Aurreko gutunean esan nian elizara hiletetara (eta ez 'hileta ospakizunetara') baino ez naizela joaten, eta zer pentsatzen dudan erriro horiez. Ba, gaia ateratzea nahikoa elizara joan behar izateko.

Umeak irakaslearen aurrean bezala egon ninduan. Alegia, fisikoki han baina burua... Apaiza jardunean ari zen bitartean, besteak beste, idatzi genuenari bueltaka aritu ninduan. Kontu batekin damutu nauk: hilean behin idatziko gutun bat eta

halako gai ilunez aritu izanaz. Horretaz nauk damu, baina han esandakoez, ez. Elizatik bueltan hitz haiek indar handiagoa hartu ditek.

Igor, hamaika aldiz jo nian elizako lurra. Esan nahi diat nire gogoeten espaziotik kolpera jaisten ninduala errealitatera. Hildakoaren izena aipatzen zian aldiro. Gaizto jarrita, zera pentsalitekek: "Hauze duk *por-kulo* hartzera joateko esateko modu kuriozosa."

Sotilagoa izango nauk; alegia, atzamarra pixkanaka-pixkanaka min egiten duen lekuan sartzea bezala zuan, dela bihotzean, dela begian, dela ipurtzuloan. Gerora jakin nian apaizak ez zuela hildakoa ezagu-

tzen, nahiz eta elizan kontrako itxura eman.

Eta bukatzeko. *Agur, Ama Birjinari* kantua. Bikaina, baina bai desegokia ere. Atzamarra ez, beso guztia kolpera sartzen duk orduan. Jakinekoka duk kantuan 'agur' esaten ari garenean inor gutxi gogoratzen dela Ama Birjinaz, hiletetan behintzat. Damu nauk gutun hura idatzi izanaz, bai. Eta damutuko nauk honetaz ere. Nire onetik ateratzen naitek, ordea. Apaizak esango lukeen moduan, Jainkoak nahi izan du horrela gertatzea.

Hiri, berriz, agurrik ez, ongi-etoerri baizik. Zerbait alaiagoa konta iezadak, kanpoan egon haizela jakin diat-eta.

San ala ez san



Igor Aranbarri

Aupa, gizon! Uste diat Agehiagotan egon behar dugula... Eliza kontuekin jarraitzen al duk? Eta, gainera, sartze kontuak, atzeko zuloa eta Ama Birjina zutabe berean sartu dituk... Ai, ai, ai! Hik ere oporrak behar dituk. Niri primeran etorri zaizkidak.

Zorteko haiz, gabonak gainean ditiagu eta... Ikusten! Azkenean, kristauak ere egin ditek gauza onik! 'San' festa eta opor guztiak: astesantuak, sansebastianak, sanmiguelak... Gora santu guztiak!

Baina gabonek baditek gus-tuko ez dudan kontu bat: opariak. Jasotzea ederra bada ere, Olentzerok ez dik bere lanik egiten aurrena dendetatik pa-

satzen ez bahaiz, eta aspaldi pasatu genian hiru erregeek gau batean etxe guztiak opariz josita uzten zituzteneko uste hura. Nolatan sinesten genuen halakorik? Azpeitira bakarrik etorrita ere, eta hiru izanda ere, bizardun horiek ez zitean azkar ibiltzeko plantarik. Ederra ume-tako ilusioa...

Orain, ingurukoenekin ez gaizki geratzeko, opari bat erostera behartuta hago, eta a zer erosketa sorta ergela egiten duguna egun hauetan. Detaille bat egin beharra zagok gutxienez, baina txikiegia bada 'kutre' zuhur bat baino ez haiz eta, handikerietan erortzen bahaiz, diru gabe gelditzeaz aparte, ziurrenik ez duk asmatuko

eta detaile txikia bat nahikoa zela entzun beharko duk gainera.

Hanka behin eta berriro sartu ostean, soluzio bila hasi ninduan. Nire erromantizismo dena alde batera utzi eta ohar-tu nauk bide onena eta errazena oparia jaso behar duenari zer behar duen galdetzea dela, eta harekin erregaloea erostera joaten bahaiz, hobeto.

Azkenean, bazakiat kontsumismo hutsa dela, erromantikoki esango nikek egunero erregala daitekeela zerbait... Baina marka duk gero!: egun hauek iritsi arte inori ez zaio burutik pasatzen detailetxorik egiterik. Beraz, oraingo hone-tan zorionak *'Niño Jesus'*-i.

bertako jokalariai ZELAIA

Hemezortzi azpeitiar jokalarirekin hasi du denboraldia Lagun Onak futbol taldeak; azkeneko urteetan baino herritar gehiago dago

▶ Testuak eta argazkiak: Arantxa Aldalur

Lagun Onak taldea 1944. urtean sortu zuten ofizialki, aurrez izen berarekin hainbat taldek jokatu bazuten ere. Geroztik une garratz eta pozgarriak pasatu dituzte elkarrekin. Azkeneko urteei begiratu, 2002an, esaterako, Espainiako Hirugarren Mailara igotzea lortu zuten, urtebetea mailaz jaitsita egon ondoren. Maila horretan dihardu, eta denboraldi honetan azpeitiar jokalariai askorekin ari da. Aitor Zulaika entrenatzaileak eta Juan Ramon Olalde Kinttela arduradun teknikoak uste dute "kalitateko taldea" osatu dutela.

Denboraldi honetan taldeko 23 jokalarietatik 18 azpeitiarrak dira. 20 eta 23 urte artean dituzte batez beste. Herritarrez gain, Urola bailarako eta Donostia aldeko lagunek osatzen dute. "Gure filosofia jarraituta, beti saiatzen gara denboraldi hasieran ahal den herriko jokalariai gehien izaten taldean, baina zaila da lehiakortasuna mantentzea", dio Olalde. Dena dela, ez da egiteko erraza hori arduradun teknikoaren ustez. "Beti geratzen dira hutsuneak taldean eta postu horiek betetzeko kanpoko jokalarien

bila joan behar izaten dugu". Ildo horretan, "gakoa, oreka topatzea" dela iritzi dio Olalde. "Alde batetik, herriko jokalariai asko izaten saiatu behar dugu eta, bestetik, taldeak, lehiakorra izanda, mailari eutsi behar dio".

Oraingo, Zulaika azpeitiar entrenatzailea pozik dago denboraldiarekin. "Taldea indartsua dauka eta sasoi ona egin dezakegula ikusi dugu". Horren harira, Olalde uste du entrenatzailea azpeitiarra izatea garrantzitsua dela. "Asko eskertu behar dugu herrian bertako entrenatzaile bat izatea taldean".

▶ **AURRERA BEGIRA.** Zulaika gustura dago Azpeitiko futbol harrobiarekin. "Herrian harrobi ona dago. Hemengo jokalariai asko deitzen dituzte Realetik, talde desberdinetarako". Ildo horretan, herrian izandako kasu desberdinak gogoan ditu entrenatzaileak. "Orain dela gutxi gure hiru jokalariai deitu ditu euskal selekzio amateurak eta, horrez gain, denok gogoan ditugu Lehen Mailara iritsitako hainbat jokalaria. Hala, alde batetik, jokalariai motibazioa aurkitzen dute aurrera jarraitzeko

eta, bestetik, horrek Lagun Onak klubak bezala lana ondo egiten duela adierazten du". Taldea indartsua izateari ere garrantzia ematen diote arduradunek. "Hau herriko taldea da. Jokalariai konpromisoa eskatzen diegu, batik bat; hau da, talde lana egiteaz eta futbolari onak izateaz gain, pertsona onak izatea", dio Zulaikak.

Olalde ondo ikusten du taldea Hirugarren Mailan. Dena dela, mailaz igotzea ez da haien egitasmoetan sartzen. "Bigarren B Mailan ez guke aukerarik izango lan txukuna egiteko; ez ekonomiko, ez azpiegitura aldetik, ezta kalitate aldetik ere", iritzi dio arduradun teknikoak. "Azpiegitura aldetik ez gaude gaizki Azpeitian, baina beti egoten da zer hobetu". "Hamahiru talde federatu daude gaur egun herrian eta, hainbeste talde egonda, sarritan nahiko motz geratzen dira dauzkagun instalazioak". Olalderen ustez, "hainbeste ekipo izatea beharrezkoa al den galdetu beharko genuke, dibertsifikazio horrek kalitateari eragiten diolako".

▶ **AFIZIOA.** Dedikazio handia eskatzen du horrelako klub bate-



ko partaide izateak. Olalde Kinttela-k 28 urte daramatza Lagun Onaken eta, dienez, esku bateko hatzekin kontatu ditzake azkeneko 17 urteotan ikusi gabeko partidak. Zulaika, berriz, jokalariai izan zen aurrea eta lehen taldeko entrenatzailea da orain dela bost urtetik. Asteazken hiru aldiz entrenatzen dira, eta ia aste bukaerero izaten dituzte partidak. "Hau bizi egin behar da, sentitu; ez dago besterik", diote. "Denbora asko kentzen du, ordu ugari eskaintzen diogu futbolari, baina kendutako gauzak baino gehiago ematen



ALDAGELA.

Elkarrizketako egunean entrenamendua hastear zeuden azpeitiar jokalaria (batzuk falta ziren). Goian, ezkerretik eskubira, Iosu Aranburu, Mikel Agirre, David Tejera, Iñigo Saizar, Lur Etxeberria, Julen Santesteban, Igor Uranga eta Hodei Tena. Behean, Aitor Zulaika taldeko entrenatzailea, Xabier Alberdi, Unai Etxeberria, Alex Altolagirre eta Ibon Morales.

dizkigu". Era berean, futbolak jende asko eta leku berriak eza-gutzeko aukera eskaini diela onartzen dute. "Oso une onak bizi izan ditugu", esaten du Olalde.

Azpeitiko afizioa hotza al da? Zulaikak uste du hemengo egoera inguruko herrietakoen antzekoa dela. "Herriko jarraitzaileek

jarrera hotza dute, hori nabarmena da, baina beste herrietan ere ez da egoten izugarriko mugimendua Hirugarren Mailako futbol taldeekin. Gipuzkoako herri gehienetan antzeko egoera dagoela esango nuke. Bizkaian, aldiz, taldeek jarraitzaile asko dituzte, eta sutsu samarrak". Zulaikak dio ezin dela ahaztu talde

asko Azpeitia baino herri handiagokoak direla.

► **OROITZAPENAK.** Hainbeste urteren buruan, pasadizo ugari bizi izan dute. Beti ez dira onak izan. Zulaikak gogoan du jokalaria zela belauna hautsi zueneko eguna. "Nire bizitzako egunik txarrrena izan zen. Egia esan, goitik



Ask

eskertu behar dugu herrian bertako entrenatzaile bat izatea taldean"

JUAN RAMON OLALDE ►
arduradun teknikoa



Talde

indartsua daukagu eta denboraldi ona egin dezakegula ikusi dugu"

AITOR ZULAIKA ►
entrenatzailea

behera erori zitzaizkidan ilusio guztiak".

Dena dela, oroitzapen kurioesak ere baditu. "Gogoratzen naiz behin Zorroaren zelaira joan ginela partida jokatzera. Aldageletara sartzen ari ginela, gu beti bezala euskaraz ari ginen hizketan, eta Zorroako zuzendaritzako batek esan zion besteari: 'Joan Manuel, Joan Manuel, ¡que estos hablan el vascuence esel!'. Guk une hartan ez genekien Bizkaian ala Extremaduran geunden, baina barre egin genuen".

jaiotzen

ARTISAUA

Juan Aizpuruak hemezortzi urte daramatza jaiotzeko piezak eskuz egiten. Gabonetako ohitura eguneroko afizio bilakatu du; urte guztian zehar zaintzen duen jaiotza muntatu du ganbaran

► Testuak eta argazkiak: Maider Zendoia



GABONETAKO OHITURA, URTE GUZTIKO AFIZIOA.

Juan Aizpuru erretiratu ondoren hasi zen jaiotzetako piezak egiten etxean. Biloba baten eskaerari erantzunez egin zuen lehena. Dagoeneko izugarrizko jaiotza muntatu du ganbaran.



ESTALPEA, JAIOTZAREN ARIMA.

Jesusen jaiotza irudikatzen duen estalpea, leku berezian.



'PERIKO MOTXALA'.

Jaiotzako pertsonaia esanguratsuena ere berak egin da.



ERREMINTEN TXOKOA.

Herrixkako gune guztiak Aizpuruak eskuz eginak dira.



INGENIARI LANAK.

Argia eta ura jartzeak buruhaustek eman izan dizkio.



KONTROLGUNEA.

Botoi bidez kontrolatzen ditu herrixkako gau eta egunak.



ORDU TXIKIETARA ARTE.

Gauetz etxeratu izan da maiz, azken ukituak emanda. ◀

Bertsolaritzari buruzko Uztarriaren lehen lana abenduan: CDa ▶



Zintaren azala, 1982an. A. ARENAS

Uztaria Kultur Koordinakundeak hurrengo asteetan bertsolaritzari buruzko bi lan argitaratuko ditu. *Urolaldeko bertso zaharrak* CDa izango da aterako duen lehen lana, Erniarraitz Bertsozale Elkartearekin batera elkarlanean, eta abenduaren 21ean aurkeztuko du (informazio gehiago, aldizkari honetako 24 eta 25. orrialdeetan).

Liburua, pasadizoez. Otsailean Azpeitiko bertsolarien pasadizoak-eta jasoko dituen liburua argitaratuko du Uztarriak. Kepa Urbieta ari da egiten. Historiaz eta biografiez atera dira liburuak; beraz, beste era bateko lana izango da hau.

Bazkideek, kuota barruan. Uztarriaren bazkideek dagokien tokian jasoko dituzte biak, kuota barruan.



KULTUR AGENDA ▶

Hilabetea.

Abendua.

Banaketa.

Asteburu

honetan.

Non.

Herriko tabernetan eta toki publikoetan.

Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea.

Uztaria Kultur Koordinakundea.



KOLABORATZAILEEKIN AFARIA.

Aurten ere egin dugu Uztarriaren hedabideetako kolaboratzaileekin afaria —denek ezin izan zuten azaldu—, elkar hobeto ezagutzearen-eta. Azaroaren 9an egin genuen, Zelai Luze soziedadean. Argazkian, afarian izan zirenak.

Higinio Oiartzabal, zutabegile

Uztaria aldizkariak zutabegile berria du hil honetatik: Higinio Oiartzabal. Lehen ere Uztarrian inoiz idatzita-koa da.

Blogari izan nahi uztarria.com-en?

Bazkideen batzarra, hilaren 29an

Abenduaren 29an (zapatua) izango da aurten Uztaria Kultur Koordinakundearen bazkideen urteko ohiko batzarra, Aitonena I-en. 10:45ean izango da aurreneko deialdia, 11:00etan bigarrena. Bazkideek egunotan jasoko dute batzarrean deialdia ofizialki.

U

1.067

bazkide gara
dagoeneko
Uztarrian;
eskerrik asko
denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

▶ Uztarria herri aldizkaria.

▶ Biografiak: *Joxe Takolo...*

▶ *Euskarazko prentsa*

eta *Azpeitia* liburua.

▶ *Loiolarik ez baltz* liburua.

▶ *Otsobeltz* liburua.

▶ *Azpeitiarrak Espainiako*

Gerran liburua.

▶ *Urrestillako musika taldeak.*

▶ *Urolaldeko bertso zaharrak*

CDa.

▶ Erdi prezioan: *Mendi gida*

eta *Azpeitiko efemerideak.*

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

▶ Uztarria herri aldizkaria.

Blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/pertsonak

Amamaren arrautzak



(...) Zer izango zen familia, arrautzarik existuko ez balitz?

Inork erantzun logikorik topatu galderarentzat?

Udan, lagun batek azokara joan behar zuela esan zidan. Amak bost dozena arrautza erosteko eskatu ziola... "Gerran ibiltze al tzeate hainbeste arrautze-kin, ala?". "Ez. *Eske* gero anai-

arriba danak amanea juten gaituk baserriko arrautzek hartzea". Ezaguna egin zitzaidan.

Orain dela 10-15 urte arte (nire amamak horretarako gai izateari utzi zion arte), gure familian amama izaten zen azokatik baserriko arrautzak erosten zituen gu denontzat. Lau-bost bat dozena arrautza erosten zituen azokan asteartero. Gero gu -gehiene-tan, bilobak-, arrautzen bila amamarengana joaten ginen, geure etxeetara dozena edo dozena eta

erdi ekartzeko. Gure ama ere joaten zen azokara, baina ez zuen arrautzarik erosten. Hartara, astean behin bederen, aittitte eta amama bisitatzek genituen. Estrategia ona gure amamarena familiari bateratasun bat emateko. Arrautzez gain propinatxo bat ere beti izaten zen tartearen, "amai ez esan ezer'e", esanez. "Eztet beher amama, lehengo astekue oindik etxien dauket", erantzuten nion, disimulatu ezin dena disimulatu nahian.

Aita izatea zer den ez dakit. Ondorioz, aitona izatea zer den ere ez. Baina osaba izatea bai. Iloba ikuste hutsak ematen didan pozak eta indarrak ez daukate preziorik. Agian, urrezko arrautza batena.

Arrautzen aitzakian gure aittitte zenak eta amamak hartzen zuten poza ere dozenakakoa zen.

▶ **Iosu Badiola**

Inkesta ▶

Larre itxi egin dutela-eta, putetxerik behar al da Azpeitian?

%54,07 Bai

%45,93 Ez

Orain dagoen galdera. Danbor talde batzuk plazan sartzen ez direnean, nora bidali?



Argazki blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/argazkiak

Urbasa



Juan Joxe Agirre argazkilaria martxan da berriro uztarria.com-en. "Aurten oso udazken ederra doa argazkilarientzat. Hori dela-eta hor ibili gara batera eta

bestera. Ni, gehienbat, Nafarroan ibili naiz, bertan dagoelako, eta Euskal Herriko baso ederrenetakoak han ditugulako. Hemen Urbasako ale batzuk".

▶ **Juan Joxe Agirre**

Web atalak ▶

Informazio ugari sartua du uztarria.com-ek, eta atal hauek dauka bertan.

Agenda. Egunez egun zer.

Albisteak. Unean uneko berriak.

Albisteak. Irudi bildumak, egunekoak...

Azpeitia.

- ▶ Zerbitzu publikoen ordutegia.
- ▶ Autobusak.
- ▶ Herriko efemerideak.
- ▶ Farmaziak.
- ▶ Azpeitiko festak eta jaiak.
- ▶ Geografia.
- ▶ Hauteskunde denetako emaitzak.

▶ Panoramikak.

▶ Taldeen informazioa.

▶ Telefono zenbakiak.

▶ Ziber-artxiboa (liburuak, Azpeitiari buruzko artikulak...).

Bideoak. Orain arteko guztiak.

Blogak. Norbanakoak, taldeenak, argazkilariek eta marrazkilariek.

Euskara. Hizkuntz eskubideei buruzko iritziak, eskubideen zerrenda, euskara dokumentazioa (hitzaldiak, Bai Euskarari Ziurtagiria...).

Gida komertziala. Herriko 556 negozioren datuak eta informazioa, jarduerak (69).

Aldizkaria. Uztarriaren zenbaki denetako informazioa, urteka eta hilabeteka.

Inkesta. Hilero galdera bat.

Di-da! Bitxikeriak, esaldiak, datuak, jakingarriak...

JOAN...



Gurean ▶

CORRADO MASACCI

▶ txontxongilo egilea

“Enparan Dorretxea atsegin dut”

Euskal Antzerki Topaketan barruan, Corrado Masacci italiarraren *Txontxongiloak*, *mundu bat* erakusketa izan zen ikusgai azaroaren 12tik 25era udaletxe azpian.

Lehenagotik izana al zinen Azpeitian?

Bai, orain hamar bat urte izan nintzen lehen aldiz, Euskal Antzerki Topaketetan.

Zer iritzi duzu herriaz?

Asko gustatzen zait; bertako paisaia, batik bat. Enparan Dorretxea atsegin dut.

Nondik datorkizu txontxongiloekiko zaletasuna?

Izatez Ravenna (Italia) hirikoa naiz. Bizantiar arteak izugarritzko garrantzia izan du han, eta horrek artea maitatzera bultzatu nau.

Gustuko txontxongiloric ba al duzu?

Iñaki Perurenaren txontxongiloa agian, Euskal Herriko

pertsonaia ezaguna delako. ◀

Emakumeen erasoen aurka

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko kontzentrazioa deitu zuen Bilgune Feministak azaroaren 25ean plazan. Era berean, ikastetxetako ikasleek elkarretaratzeak egin zituzten azaroaren 23an emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko —argazkian—. Zortzi emakumek salatu zituzten tratatu txarrak 2006an Azpeitian.



Musika Eskolak 25 urte

Juan de Antxieta Musika Eskolaren 25. urteurrena da aurten. Erakundearen historia biltzen duen liburua aurkeztu zuten azaroaren 20an udaletxean. Argazkian, Udaleko eta Musika Eskolako ordezkariak.

Kultur Mahaiaren bilera berriro

Kultur Mahaiaren bilera egin zuten azaroaren 15ean udal areto nagusian —argazkian—. Ia 30 lagun bildu ziren Azpeitiko kultur dinamika aztertzeko, eta talde eragileak sortu nahi dute.

Lan istripua Corrugadosen

Corrugados enpresako langile batek —J.M.B.— hanka galdu zuen azaroaren 18an enpresako kamioi batek azpian harrapatuta. Argazkian, ezbeharra salatzen LABek deitutako elkarretaratzea.



AZAROAK 3 ▶ Delorean taldearen kontzertua plazan. **AZAROAK 4** ▶ Azpeitiko Argazki Elkarteak antolatutako argazki rallya Izarraitz magalean. **AZAROAK 9** ▶ San Martin jaien hasiera Lasaon. **AZAROAK 10** ▶ San Martin jaiak Bustinzuriko Arrabalean. **AZAROAK 13** ▶ *Ninguna mujer nace puta* hitzaldia Aitonena I-en. **AZAROAK 14** ▶ Kubako dokumental emanaldia Gaztetxean. **AZAROAK 24** ▶ Lakrikun taldearen 25. urte... *ta segi bueltaka* antzezlanaren Izarraitz pilotalekuan. **AZAROAK 25** ▶ Reggae gaua Gaztetxean.





ABENDUAK 12 ▶ *Peruko andreak* 2007 hitzaldia Benantxio Iruretak 20:30ean, Enparanen. **ABENDUAK 13** ▶ Santa Luzia jaien hasiera 10:00etan, Elosiagan. **ABENDUAK 15** ▶ Legen Beltza eta Brainstorm taldeen kontzertua 22:30ean, plazan. **ABENDUAK 24** ▶ Ikastetxeen Olentzero bateratua 12:00etan, Aranetik abiatuta. **ABENDUAK 25** ▶ Musika bandaren kontzertua 13:00etan, arkupeetan. **ABENDUAK 31** ▶ Euskal presoen, iheslarien eta deportatuen aldeko manifestazio isila 19:00etan, plazatik abiatuta.



IKASBERRI KIROL ELKARTEKO X. KROSA.

Federatuei eta eskolartekoei zuzendutako lasterketa Gipuzkoako II. Challengerako puntuagarria izango da. Lasterketak hamarkada beteko du aurten. Gabon inguruan izan ohi da.

ABENDUAK 23 ▶ 10:00etan hasita ▶ Goenako zelaian ▶ Ikasberri Kirol Elkartek antolatuta

LUIS ALBERDI ▶ Azpeitiko Dantza Suelto Txapelketako antolatzailea

“Bikote **azpeitiarrez gainezka** daude dantza txapelketak”

Santo Tomas egunean, urtetik urtera errotzen joan den hitzordua izango da plazan: Azpeitiko Dantza Suelto Txapelketa. Luis Alberdi ekimenaren antolatzailea dagoeneko azken ukituak ematen ari da ekitaldiari. “Aurten txikiak eta nagusiak lehiatuko dira txapelketan; hamabost bikotek hartuko dute parte txikietan eta hamarrek nagusietan”.

Aurtengo txapelketak berrikuntza gehiago ere eskainiko ditu. “Txistua eta soinua tartekatuko ditugu, eta guztira bost fandango eta bost arin-arin pieza joko dituzte musikariek”. Alberdik orain 26 urte antolatu zuen lehen aldiz dantza txapelketa. “Saninazioetarako antolatu nuen, baina Gipuzkoako Txapelketa-rekin bat egiten zuen eta Santo Tomas egunera aldatzea erabaki genuen”.

Azpeitian dantzasueltoarekiko afizio handia dagoela iritzi dio dantza irakasleak. “Bikote azpeitiarrez gainezka daude txapelketak. Azpeitiar dantzariak parte hartuko ez balute, galtzear egongo lirateke zenbait txapelketa”.

Dena dela, txapelketetan parte hartzeak sakrifizio handia eskatzen duela uste du. “Izan ere, txapelketan parte hartzen duten gazteek astean bost edo sei ordu igarotzen dituzte entseatzan”.

ABENDUAK 21 ▶

Azpeitiko Dantza Suelto Txapelketa.

▶ 17:30ean.

▶ Azpeitiko plazan.

▶ Azpeitiko Dantza Suelto Eskolak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

ABENDUAK 20 ▶

Txapelen omenezko jaialdia.

▶ 22:30ean.

▶ Betharram aretoan.

▶ Eniarraitzek eta Lankuk antolatuta.

▶ Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Aitor Sarriegi, Uxue Alberdi eta Jokin Uranga.

▶ Aurkezlea: Haritz Etxeberria *Ministro*.



ALT XORRA

herritarren eskura


Loiolako Liburutegian eta Artxiboan 132.000 liburu dauzkate erregistratuta eta 10.000 artxibo. Baina ez da oso liburutegi ezaguna. Jendeari zerbitzu hobea emateko asmoa dute, bilduma berezi gisa

► Testuak eta argazkiak: Enekoitz Esnaola

1 997ko uztailaren 24an inauguratu zuten ofizialki Loiolako Liburutegia eta Artxiboa. Bertan izan zen, besteak beste, Peter Hans Kolvenbach josulagunen konpainiako jenerala. Jendearentzat, ordea, orduko urrian zabaldu zuten. Hamar urte pasatu dira, eta zenbateraino da ezagun Loiolako Liburutegia eta Artxiboa?

“Zabalkundea edo liburutegia ezagutaraztea da guk daukagun arazorik handiena”, aitortzen du Jose Mari Etxeberria Loiolako josulagunen komunitateko ardura-dun nagusiak. Gizarteak liburutegia-eta gehiago ezagutzeko, “komunikazio plan handi bat” lantzen ari dira. “Komunikazio arloko enpresa batekin ari gara lanean. Gure irudia-eta landu ditu, zer nolako edukiak ditugun, Loiolak bere berri nola ematen duen, non ezagutzen gaituzten, zer bultzatu beharko genukeen aztertu dute... Oso irudi ederra agertu da, elizak eta gizarteak josulagunen irudia ontzat jotzen dutelako. Talde bezala estimatzen gaituzte, eta guk daukagun instituzioak, unibertsitateak, liburutegiak, santutegiak... ondo ikusten dituzte”.

Baina aurreko galderak irteten du berriro: jendeak zenbateraino daki zer dagoen Loiolako Liburutegi eta Artxiboan?



Jose Mari Etxeberria Loiolako josulagunen komunitateko nagusia, hango liburutegi eta artxiboan.



Loiolako Liburutegia eta Artxiboaren ataria.



1498. urteko liburua.



Espainiako Errege Katolikoaren garaiko agiriak.

132.000 liburu dituzte erregistratuta eta, beharbada, beste hamar mila ale ere edukiko dituzte bertan. Haietatik 37 lan inkunabreak dira (1500. urte aurrekoak), eta 40.000 inguru 1900. urte aurrekoak. "Euskal Herriko eduki zahar gehien dituen liburutegia

da Loiolakoa. Deustukoa dago hurrena, baina urrutira", dio Olatz Berasategi liburutegi eta artxiboko zuzendari nagusiak. "Loiolako josulagunek lehendik erregistratzen zituzten sistemabatean, beti lan hau egiten aritu izan direlako. 1997tik, ordea, modu iraunkor eta profesionalagoan ari gara erregistratzen. 1900. urte aurrekoen fitxak egiten, esaterako, enpresa batek jardun zuen".

► **HELBURUA.** Baina jendeak bertako edukia ezagutzea soilik al da Loiolaren helburua? Ez. Zerbitzu izaera indartu nahi du, eta hemen dator berrikuntza: Deustuko Unibertsitatearen barruan, Loiolakoa bilduma berezi bihurtu nahi dute, jendeari erraztu egin nahi diote bertako edukiak izatea eta hartzea... "Gaur egun Loiolakoa liburutegia eta artxiboa da, hori izan da orain arte, ez besterik, baina horri buelta eman nahi diogu", dio Etxeberriak. "Deustuko CRAIaren barruan egotea nahi dugu". Hain justu, Ikasketarako eta Ikerkuntzarako Baliabideen Zentroa da CRAI (*Centro de Recursos de Aprendizaje e Investigación*).

Europar 20 bat CRAI egongo dira, eta sarean sartuta daude. Deustukoa da haietako bat, eta Loiolako egitasmoak proiektu horren barruan sartu nahi du, bilduma edo kolezio berezi bihurtuta.

Deustuko egitasmo oso horren barruan hiru gune egongo dira: bat, Bilboko unibertsitate kanpuz barruko liburutegia da, Deustuko CRAI hori; bestea, Donostiako kanpusekoa; eta hirugarrena litzateke Loiolakoa. "Gureari 'kan-

Laguntza eske

Loiolako Santutegiaren eraikinak, Etxe Santua salbu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoak dira, baina Liburutegiko eta Artxiboko materiala bera josulagunena da. Gaur egun ehun mila liburutik gora liburu daukate erregistratuta, eta urtero mila bat ale erosten dituzte. "Josulagunek beti eduki izan dituzte liburutegi onak eta ugariak", dio Etxeberriak.

Liburuak Loiolara bidali ere bidaltzen dituzte beste komunitateetatik, horietako josulagunak hiltzen edo zahartzen joan ahala. Hala, handitzen joan da Loiolako liburutegia, "baina ale gehiago har ditzakegu, Loiolako teilape hau izugarri handia delako".

Teknika aldetik hobetzen joan behar izan dute. Hezetasuna kontrolatzeko tresnak dituzte. Liburu inkunableei, kasu, gero eta teknologia berriagoa eta garestiagoa erabili behar dute. "Guk diru publikoa behar dugu hori dena behar bezala mantentzeko-eta. Hain dira gauza bitxiak eta hain dira altxorrak hemen ditugunak, behar dutela jarraipena".

“Leku gustagarria eta erabilgarria izatea nahi dugu Loiolakoa, eta ez deposito bat”

JOSE MARI ETXEBERRIA ►

Loiolako komunitateko nagusia

pusa' deitu beharrean, ordea, 'bilduma berezia' deituko genioke", esaten du Etxeberriak.

Londresko, Lovainako (Belgika), Ganteko (Belgika), Utrechko (Holanda)... unibertsitateek kolezio bereziak dituzte. Esate baterako, Nobel sariak utzitako ikerketa lanak-eta daukate, "Guk Loiola ere halakoa bihurtu nahi dugu, zentro bat, jendea etorriko dena eta liburuak begiratu, ukitu... Leku gustagarria nahi dugu, erabilgarria, eta ez depositato bat; depositoarene irudi hori kendu egin nahi dugu. Aldaketa handiak egitera goaz".

Baina, Loiolakoa horrelakoa bihurtzen badute, zerbitzu hori ematen dutela "gizarteari komunikatu beharra" daukate, jendeak erabil dezan bertan dagoen eduki hori dena. "Orain, guk ditugun edukiak, gaiak, pertsonak, formazioa... hori dena jendearen aukeran nola jarri aztertzen ari gara komunikazio enpresa horrekin. Oso gutxi gara ezagunak, ez gaudelako behar bezala antolatuta. Gizarteari laguntzeko eta hari zerbitzu bat emateko, beste era batera prestatu behar dugu hau dena, eta teknika hobeak erabili", uste du Loiolako arduradunak.

► NEURRI TXIKIAN GAUR.

Gaur egun zerbitzu hori ematen dute, "baina oso-oso neurri txikian", Berasategik dioenez. "Ez dago inolako arazorik edozein liburu eta artxibo kontsultatze, eta XX. mendetik honako liburuak etxera eramateko aukera jartzen dugu. Hori zabaldu egin nahi dugu. Nik uste jende askok ez dakiela artxibo aldetik sarrera dute- ►





San Inaziori buruz liburu ugari dago.



Euskal liburuen atala.



Nemesio Otaño musikariari buruzko agiriak.

nik hemen, eta badute. Baina komunikazio plan handiagoa egin beharra dugu". Baliabide eta diru laguntza handiagoak behar dituzteladiote biek.

Jarri nahi duten zerbitzu bat hauxe da, esaterako: norbaitek Internetik Deustu-Bilboko liburutegian berak nahi duen ale bat dagoela ikusten badu, Loiolakoek liburu hori bi astera-edo ekarri egingo diote, edo alderantziz, hara eraman.

Batzorde bat eratu dute, eta orain artean lau bat batzar egin dituzte. Diagnostikoa egina daukate, eta hurrengo urteko otsailaren azkenerako bukatuta izango dute "ikuspegi guztiaren lana", eta gero hasiko dira pausoak ematen. "Diru laguntzen arabera, pausoak handiagoak edo txikiagoak izango dira", dio Etxeberriak. Gizarte aurreratu batean liburutegiak behar bezala jarri behar dira. E-maila batzuk aste-santuetarako ikusiko direla us-te du. "Ikusi beharko lirateke, behintzat".

Liburutegien sarea

Eusko Legebiltzarrak Liburutegi Legea onartu zuen joan urriaren 26an eta, hala, Euskadiko Liburutegia eratzeke lehen pausoa eman zuen. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako liburutegiak Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeari jarraitzen zioten orain arte. Baina lege horrek ez zien eragiten Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi guztiei. Izan ere, udal liburutegiak baino ez ditu arautu.

Hala, sistematik kanpo daude erkidegoko hiru lurraldeetako hainbat liburutegi: foru aldundietako liburutegi publikoak, eta administrazioaren mende ez dauden liburutegi espezializatu eta pribatuak; Loiolakoa, esaterako.

Orain ere Euskadiko Irakurketa Publikoko sarea udal liburutegiak baino ez dute osatuko, eta

gainontzeko liburutegiei hitzarmenen bitartez han parte hartu ahal izateko aukera emango diete, "euren zerbitzu multzoa herritar guztien eskura jartzen badute".

Jose Mari Etxeberria Loiolako josulagunen komunitateko arduradunaren ustez, "sistema batek beharko luke. Liburutegi asko dago Euskal Herrian, eta denak sistema baten barruan egotea interesgarria litzateke".

Legearekin sektorearen erregulazio zehatzagoa egin nahi du Eusko Jaurlaritzak, "Euskadik liburutegi azpiegitura eta zerbitzu moderno eta koordinatuagoak izan ditzan". Hartara, "herri administrazioek establezimendu horietarako jartzen dituzten baliabideak optimizatu egingo dituzte".

Edozein liburu eta artxibo kontsultatzeko-eta aukera zabaldu egin nahi dugu; gaur neurri txikian egiten dugu"

OLATZ BERSATEGI ▶

Loiolako Liburutegiko eta Artxiboko zuzendari nagusia



Eman zure negozioaren berrir Azpeitiko Gidan!

azpeitiko
GID@
HERRIKO NEGOTIOEN GUNEA

azpeitiko EREGI, Euskara eta Komunikazioa

• GIDA
• EREGI
• GID@

azpeitiko Gida Komertziala

azpeitiko Gida Komertziala

azpeitiko Gida Komertziala

arte eta diseinu ikastegia

di

● **Dibujo eta eskulanak**
(haurrak) 17:30/19:00

● **Pintura** 17:30/19:00

● **Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

ia espazio adina **LIBURU**

Garai batean ikastola egon zeneko eraikina orain dena liburuz eta artxiboz beteta dago; sei fondo mota dauzkate

Garai batean ikastola egon zeneko eraikinean dago Loiolako Liburutegia eta Artxiboa. Bada materiala!

FONDOAK ▶

Loiolako Santutegiko Liburutegiak eta Artxiboak fondo hauek ditu.

Liburu zaharren atala. 1500. urte aurreko liburuak eta XVI. mendetik XIX.enera artekoak.

San Inaziori buruzkoa. Liburu sorta zabala.

Euskal liburuak. Atal berezia.

XX eta XXI. mendeak. Atal orokorra.

Musika. Musikari buruzko liburutegia eta artxiboa (90.000 artxibo erregistratuta); Nemesio Otaño aitaren artxiboa tartean.

Loiola. Artxibo historikoa.

LIBURUTEGIA ▶

132.000 lan daude erregistratuta. Horietatik 40.000 ale inguru 1900. urte aurrekoak dira, eta besteak XX. gizalditik honakoak. Kronologikoki edota gaika sailkatzen dituzte.

Kronologikoki. 37 lan inkunablenak dira (1500. urte aurrekoak), 1.492 lan XVI. mendekoak, 4.520 XVII. enekoak, 10.781 XVIII. enekoak, 15.804 XIX. enekoak eta 34.729 XX. enekoak.

Gaika. Natur zientzietako, matematiketako... liburu 1.320 erregistro daude, 1.353 medikuntza-



Jakingarriak

Ordutegia. Lan

egunetan irekita izaten da, astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00 eta 15:30-19:00ak artean.

Gelak. Bi gela daude, eta 72 lagun sartzen dira. Taldeentzat beste leku bat ere badago.

Bisitariak. Gehienak, ikasleak eta ikertzaileak izaten dira. Ikasleak, Azpeitikoak eta Azkoitikoak. Haiez gain, oposaketak prestatzen ari diren herritarrak, irakasleak...

Liburuak etxera.

Liburuak eraman daitezke etxera —hamabost egunerako gehienez, oro har—, eta ikasleek enpresaritzak, zuzenbidea, ingeniariak eta informatikari buruzkoak hartzen dituzte, batez ere.

koak, teknikakoak, zientzia aplikatukoak..., 2.172 arteari buruzkoak, 13.811 lengoia eta literaturakoak, 5.540 historiakoak, 13.456 erlijioak, 6.492 San Inaziori buruzkoak (biografiak, gogo-jardunak, lan osoak, autobiografiak, epistolarioa) eta 7.000 euskal gaikoak.

Kontsulta nola egin? Egilea, lanaren izenburua, argitaletxea eta argitalpen urtea jarrita, batik bat.

Nola osatzen dute liburutegia? Josulagunen interesekoak zeintzuk diren kontuan hartzen dute, baina liburutegira doazen kezkek zer diren ere.

ARTXIBOA ▶

10.000 lan. Erregistratuta daude. **Fondoak.**

▶ San Inazio eta bere familia. Testamentuak, familiaren erosketak eta salmentak...

▶ Loiolako Santutegiaren artxiboa. Testamentuak, errodak...

▶ Josulagunen Konpainia. Historia, etxeak eta ikastetxeak, idatziak...

▶ Historia zibila. XV. mendetik XX.enera arteko idatziak eta agiriak. Espainiako Errege Katolikoak (XV. mendea), Lermako Dukearenak (XVII.)...

▶ Gipuzkoako familien artxiboak. Azkoitiko Idiakez-Olanorena, Oiartzungo Maleorena... ◀

Ikerketakoak

Liburutegiko arduradunek pertsonalki hartzen dituzte ikertzaileak, halako lanak aurkitzen laguntzeko-eta. Ikertzaileek aurrez Internet bidez XVI. mendetik XIX.enera arteko lanen kontsultak egiteko aukera dute, besteak beste. 1900. urtea baino lehenagoko liburuak kontsulta egiteko

www.mcu.es helbidean Ondasun

Bibliografikoaren katalogo kolektibora sartu behar da, edo www.kulturaondarea.org-n.

Familien artxibo pribatuak agiriaren kontsulta egiteko helbidea: www.irargi.org orrialdearen *Badator* datu basea.



bertso zaharrak CD-AN

Erniarraitzek eta Uztarriak 'Urolaldeko Bertso Zaharrak' berrargitaratuko dute abenduan. Ikasle talde batek grabatu zuen lehen aldiz, orain 25 urte

► Testuak: Maider Zendoia ► Argazkiak: Pako Aristik eta Agustin Madrazok utzita

TALDEKIDEAK.

Goian, ezkerretik eskubira, Pako Aristi, Inaxio Tolosa, Agustin Madrazo eta Eli. Behean, ezkerretik eskubira, Marian Larrea, Antton Elosua, Pello Larrañaga, Mari Jose Bikendi eta Jose Mari Arozena.

kaskideak, sortzaileak, bohemioak, akrata samarrak... Horrela deskribatzen du Pako

Aristi urrestildar idazleak Urola bailarako bertso zaharrak bildu eta musikarekin uztartzeko ideia izan zuen ikasle taldea. Institutuan ikasten ari zirela, 1982an, *Urolaldeko Bertso Zaharrak* izeneko zinta bikoitza kaleratu zuten, Urolaldeko Euskal Eskolaren –gaur egungo AEK– alde. Ekinmenaren zilarrezko ezteia gogorarazteko, Erniarraitz Bertsozale Elkarteak eta Uztarria Kultur Koordinakundeak berriz ere argitaratuko dute lana, baina CD batean oraingoan. Abenduaren 21 ean izango da aurkezpena, 11:00-etan, Aitonena I-en.

Urolaldeko Bertso Zaharrak zinta grabatzeko ardura bere gain hartu zuten ikasleak kulturalki emankorra izan den belaunaldiko kideak ziren. Talde hartan batera ibili ziren, besteak beste, Pako Aristi (idazlea), Iñigo Aranbarri (idazlea), Juan Luis Zabala (idazlea) eta Inaxio Tolosa (Karidadeko Benta musika taldeko kidea). "Ez ginen geldirik egotekoak. Klasean aspertu egiten ginen eta, sormena landu nahi genuenez,



gauzak egiteko mugitu egiten ginen", dio Pako Aristik. Horrela, *Kitto* aldizkaria sortu zuten –zenbaki bakarria argitaratu zuten–, *Jeronimoren Oihua* izeneko papelean izaera desberdineko idatzia eskegitzen zituzten eskolako pasilloan eta bailarako bertsoak biltzen zituen zinta bikoitza grabatzea adostu zuten –*Urolaldeko Bertso Zaharrak*–.

Ikasle taldea zutabe sendo baten inguruan egituratu zen: Iñaki Azkune *Igarate*-ren inguruan. Azpeitiko Institutuko maisua zen azpeitiar hura 1982an. "Sekulako talde berezia tokatu zitzaidan, gutxitan gertatzen den horietakoa", dio. Orduko eskola emateko modua, gaur egungoaren aldean desberdina zen. "Orain hezkuntzan guztia programatuta dago, baina garai hartan sekulako askatasuna genuen irakasteko orduan". Horrela, Txomin Artola, Benito Lertxundi edota Mikel Laboa abeslarien kantak entzunez zaletu zituen ikasleak irakurketara.

► **ERREDUA.** Pako Aristi idazlea izan zen ikasle haietako bat. "Filmetako irakasle zoragarri horietakoa zen *Igarate*, zakua bete liburu ekartzen zuen eskolara eta ikasle bakoitzari afizioaren araberrako liburua eskaintzen zion", gogoratzen du Aristik. "Hor hartu genion guk maitasuna bertsolaritzari eta euskal literaturari".

Institutuko ikasleen artean bertsolaritzarekiko afizioa hazten joan zen. Ramon Etxezarreta Azpeitiko Udaleko Kultura zinegotzia zela, inguruko bertso zaharrak biltzen zituen liburua prestatzen hasi zen Fede Aranbarri



Pako Aristi txanpainarekin bustitzen grabazioaren bukaera, orain 25 urte.



Pello Larrañaga eta Agustin Madrazo, grabaketan.



Jose Mari Arozena kitarrarekin eta Agustin Madrazo biolinarekin.

zena. "Liburuaren ideia ez zen gauzatu. Baina ideari jarraituta zinta bat grabatzea pentsatu genuen", esaten du Azkunek. Hiru helburu betetzeko asmoarekin abiatu zuten egitasmoa. "Hemen go ondarea ezagutarazi, AEKren izena hedatu eta dirua lortu nahi genituen proiektuaren bidez".

► **BUROKRAZIA.** Diskoa aurrera ateratzeko burokraziaz Xabier Uri *Antzarra* azkoitiarra arduratu zen. Institutuko ikasle ohia eta AEK-ko kidea zen Uri. "AEK ez zen egitasmoaren edukian sartu; beharrezko agiriak betetzeaz baino ez zen arduratu". Horrela, Donostiako IZ Estudioa kontratatu zuten grabazioa burutzeko. "Han ez ziguten deskonturik egin; kapitalismo gogorra ezarri ziguten. Orduka ordaindu behar izan genuen; beraz, hiru eguneko epean grabatu genuen zinta, diru-kontuak behar bezala ateratzeko".

Urola bailarako bertsolarien koplak zaharrak aukeratu zituzten bilduman sartzeko. Bertso haien jabeak inguruotako bertsolaririk ezagunenak ziren: *Muno*, *Otsolarrre*, *Kortazar*, *Uztarri*, *Sokin*, *Atano* anaiak... Bertsoak aukeratuak, Pako Aristi arduratu zen doinua jartzeaz. "Xabier Lete eta Antton Valverdek ateratako bi disko bikoitz izan ziren nire erreferentzia; bata Txiritaren ingurukoa eta bestea bertso zaharrek osatutakoa". Proiektuko zuzendari musikala izendatu zuten eta, ondorioz, berak aukeratu behar izan zituen bertsoen doinuak. "Leteren-eta diskotik hartu nituen batzuk, doinu tradizioaletatik besteak", gogoratzen du Aristik.

Formazio musikalak txaranga-folk egitura zuela dio Aristik. Lagunarteko musikariak aritu ziren horretan; hala-nola, Inaxio Tolosa, Antton Elosua, Agustin Madrazo, Pello Larrañaga, Jose Mari Arozena *Txema*, Mari Jose Bikendi eta Aristi bera. Abeslariak aukeratzeko unean, berriz, Egan musika taldeko kideengana jo zuten. "Azkoitian izan zuten kontzertu bateko atsedenean, mokadu bat egitera joan zirenean egin genien proposamena eta baiezkua eman zuten", gogoratzen du Aristik. Dena dela, abeslari gehiago ere izan ziren grabazioan: Jexux Alberdi *Egileor*, Trino Azkoitia, Imanol Urbieta eta Marian Larrea.

► **SALMENTAK.** Grabazioa bukatutakoan, salgai jarri zituzten zintak nonahi. "Nola saldu behar zen garbi zegoen: postuz postu, herriz herri", dio Uriak. Azkunek gogoan ditu han eta hemen egindako egonaldiak: "Makina bat aldiz egon ginen udaletxe azpiko arkupeetan. Gipuzkoako Bertso Txapelketara ere joan ginen".

Oro har, oroitzen onak dituzte egitasmoak iraundako egunez. Aristik gogoan ditu Txema irakaslearen etxean egindako entseguak, Errezilgo baserri batean. "Benetan ondo pasatzen genuen. Exijentzia musikal handiegirik ez geneukan. Ondo pasatzeko modua baino ez zen guretzat".

Zintako azala egiteko unea ere ez zaio ahaztuko. Agustin Arenas argazkilariarekin geratu zen horrako argazkia ateratzeko. Partitura eta kitarra baten gainean zake la jartzea erabaki zuten. Aristik Urrestillako errekatik harrapatutako zakela, ordea, ez zen geldirik egoten argazki saioa hasi zutenean. "Zakelak odol hotzekoak zirela esan zidan Arenasek; hortaz, zakela izozkailuan sartu eta seko gogortuta atera genuen...". Saioa primeran aguantatu arren, azken *klik!* entzutean sekulako saltoa eman zuela gogoan du. Madrazok '*espontanitatearen erregea*' gisa bataiatu zuen Aristi. ◀

“Leteren eta Valverderen diskoetatik hartu nituen doinu batzuk, tradizioetik besteak”

PAKO ARISTI ►

Institutuan ikaslea orduan

“Sekulako ikasle talde berezia tokatu zitzaidan, gutxitan gertatzen den horietakoa”

IÑAKI AZKUNE 'IGARATE' ►

Institutuan irakaslea orduan

“Hiru eguneko epean grabatu genuen zinta, diru-kontuak behar bezala ateratzeko”

XABIER URIA 'ANTZARRA' ►

zinta grabazioaren egileetakoa



gurpil gainean HEZIZ

Urola Ikastola Txirrindulari Eskolak zilarrezko ezteiak bete ditu. Liburua eta DVDa argitaratuta ospatuko dute

► Testuak: Maider Zendoia ► Argazkiak: Lagun Onak Txirrindulari Elkartek utzita

Urola Ikastola Txirrindulari Eskola 1982an sortu zuten, Santi Lazkano txirrindulari ohiak bultzatuta. "Santi Lazkano lesionatu zenean, txirrindularitza profesionala utzi eta herritarrei erakusten hastea erabaki zuen", dio Heriberto Sanchez Lagun Onak Txirrindulari Elkarteko lehendakariak. Dagoeneko 25 urte igaro dira eskolaren hasia-

penetik eta urteotan 300 bat ikasle pasatu dira bertatik.

"Santi Lazkanok gain, Fernando Aldalur, Bittor Olaizola, Jose Miguel Arruti eta Jose Angel Arruti ibili ziren irakasten hasiera haietan", gogoratzen du Jose Inazio Arellano Lagun Onak Txirrindulari Elkarteko kideak. Eskolak hasieratik lortu zuen gurasoen babesa. "Jose Mari Arratibel eta Heriberto

Sanchez izan ziren hasieratik laguntza eskaini zuten gurasoak; beharrezko kontuak lotu, koordinatu...; denetik egiten zuten".

Urolako eskolan lau udalerritan: gazteak aritzen ziren bizikletan: Azpeitia, Azkoitia, Zestoa eta Errezilgoak. Eskolaren egoitza Azpeitian egon zen kokatuta 1994. urtera arte, baina 1995etik gaur egunera arte Peña Elorza

Azkoitiko taldeak hartu du bere gain inguruotako txirrindularien heziketa.

► **PROFESIONALAK.** 25 urtek askorako ematen dute, eta txirrindulari eskolaren uzta emankorra izan da. Harrobitik bost ziklista profesional atera dira: Joseba Azkune, Andoni Aranaga, Joseba Albizu, Jokin Ormaetxea eta Mirreia Epelde. Gainera, herrian kirol honekiko afizioa errotzeko balio izan du eskolak. "Gaur egun txirrindularitzak Azpeitian duen afizioan zerikusia izan du eskolak. Eskolara joan ezean, gazte askok baloia hartuko zuketena eta futbolearen ariko lirateke", dio Jexux Arakistain elkarteko kideak.

Eskolakoen artean sortutako giroa berezia izan dela iritzi diote bertakoek. "Oso oroitzapen onak ditugu garai hartaz. Oraindik harremanetan jarraitzen dugu geure artean", dio Arellanok. Pasadizo ugari bizitakoak dira urteotan. Hasierako urte haietan Eskudero autobusetan joaten ziren lasterketetara. 50 bat lagun biltzen ziren guraso eta haurren artean. Bizikletak autobusaren sabaian garraiatzen zituzten; sartzen ez zirenak, berriz, pasilloan. "Asko aldatu dira garaiak", esaten du Arakistainek.

Abenduaren 15ean ospatuko dute eskolaren 25. urteurrena. Liburua eta DVDa atera dituzte.



1982an, Mikel Rezabal, Iñaki Unanue, Diego Medinilla, Javier Merketegi, Jesus Mari Roca, Olga Sanchez, Javier Leandro, Mikel Garmendia, Eneka Lazkano, Jose Agustin Lizarralde, Julian Caballero, Iker Garate, Gotzon Lazkano, Iñaki Oiarzabal, Xabier Elortza, Elias Gonzalez, Jon Larrañaga, Aitor Lazkano, J. Antonio Arrizabalaga, Ion Arratibel, Iñaki Sanchez, Jose Angel Arruti, Jose Miguel Arruti, Fernando Aldalur eta Bittor Olaizola.

Egitaraua

ABENDUAK 15 ►

Liburuaren aurkezpena.

12:00etan, udaletxean.

Mahai-ingurua.

Aurkezpenaren ondoren, udaletxean.

Bazkaria. 14:00etan, Añota sagardotegian. Izen-ematea: Beni (943 15 06 29) eta Aitzaki (943 15 07 38), abenduaren 13ra arte. ◀



DANBORJOLE BERRIEN JANZKERAK PREST.

Bi talde berrik irtengo dute sansebastianetako helduen danborradan aurtan: Basazabal eta Ziripot elkarteek. Guztira 22 talde kaleratuko dira urtarrilaren 19an Azpeitian. Basazabaleko danborjoleak sukaldariz jantziko dira —argazkian, ezkerrean—, eta Juanjo Lapeiraren zuzendaritzapean astinduko dituzte barrikak. Ziripoteko kideek mikelete jantzia aukeratu dute —eskubian— Francis Hildagoren gidaritzapean jotzeko danborrak.

► Testua eta argazkia: Maider Zendoia ► Manikiak: Biur dendakoak

Efemerideak ▶ abendua



Josu Bereziartua eta Pako Iriarte Aconcaguako gailurrean, 1986an.

urte bukaera MUGITUAK

Lasterketa antolatu, taxiak arautu, San Inazio jaio... askorako eman du abenduak

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

ABENDUAK 2-1985 ▶

Abesbatza bateratua. Juan de Antxieta Musika Eskolako abesbatza, parroko abesbatza eta lehenagotik Olatz Abesbatzan ibilitako kideek Julian Barrene-tea abesbatza eratu zuten.

ABENDUAK 5-1963 ▶

Taxi arautegia. Herriko taxi zerbitzuaren arautegia onartu zuten.

ABENDUAK 8-2000 ▶

Otaegi txapeldun. Iban Otaegi Beixama pilotariak bigarren mailako Lau t'erdiko Txapelketa irabazi zuen, Enrike Galarza 22-12 mendean hartuta.

ABENDUAK 10-1928 ▶

'Atxunberria' hil. Joxe Martin Goenaga *Atxunberria* aizkolaria hil zen Azpeitian.

ABENDUAK 15-1991 ▶

Banden federakuntza. Gipuzkoako Banden Federakuntza sortu zuten Azpeitian.

ABENDUAK 23-1985 ▶

Kaka Flash itxita. Jose Mari



Iban Otaegi Beixama pilotaria.

Bastida alkatearen aginduz itxi egin zuten Kaka Flash irratia.

ABENDUAK 25-1491 ▶

Herriko zaindaria. Loiolako Inazio jaio zen.

ABENDUAK 30-1986 ▶

Gailurra erdietsi. Josu Bereziartua eta Pako Iriarte Aconcaguako gailurrera iritsi ziren.

ABENDUAK 31-2001 ▶

San Silbestre. Iraurgi Atletismo Taldeak lehen aldiz antolatu zuen San Silbestre lasterketa. ◀

Pertsonaia ▶

ADIO ALTUNARI.

Dagoeneko bost urte pasatu dira Jose Mari Altuna (Azpeitia, 1928) hil zela. Udal Musika Bandako zuzendari ohia 2002ko abenduaren 4an zendu zen. Lan asko egin zuen: banda zuzendu, parroko tipleen abesbatza gidatu...



Datua ▶

45

URTE ZABORRA KAMIOIAN BILDUZ.

Zabor bilketa zerbitzua hobetzeko herriak kamioi bat erostea erabaki zuen ahoz batez 1962ko abenduaren 20an. Harrezkero, asko aldatu da sistema. Dagoeneko bost edukiontzi daude herrian: urdina (papera), berdea (beira), horia (plastikoa), zuria (arropa) eta pilena.

Argazkia ▶



ALTOR LANTEGIA KISKALITA.

2001eko abenduaren 12an erre zen Altor lantegia —Landeta auzoan zegoen kokatuta—. Altzariantzako osagaiak egiten zituen enpresa guztiz kiskalita utzi zuten sugarrek. Suteak eragindako kalteen ondorioz, enpresak behin betiko itxi zituen atek.

Kontua da... ▶

Euskara udaletxean (1)



Imanol Elias
Odriozola

Azpeitiko herria euskaraz bizi izan da eta, horren beharra ikusita, agintariak neurriak hartzen ahalgindu dira historian zehar. Ondorengo erabakiek islatzen dute agintarien nahi hori.

Tornay jauna herriko sendagilea zen 1716an, baina gaixo zegoela adierazi eta lanpostua utzi zuen. Horren aurrean, Udalak erabaki zuen ordezkoa izendatzeko unean hautagaiak euskaraz zekien edo ez kontuan izan beharko litzatekeela. Era berean, meritu parekatuak zituzten pertsonen kasuan, lehentasuna emango zitzaion euskara menperatzen zuenari.

Pedro Pizarro jauna herriko agintaritzarako aukeratu zuten 1812an. Gainerako agintariek uste zuten lan egokia egiteko gai zela, bainanapoan jaio zenez eta euskara ez zuenez ezagutzen, herriko bi udaltzain jarri zizkioten itzultzaile gisa. Inoiz ez zen alkate izango; udal kontseilari edo zinegotzi, gehienez.

Joxe Barquin eta Sorazu jaunak Urrestillako zirujau postua eskatu zuen 1862an. Osabarekin zortzi urtean Mutrikun bizi ondoren, euskara ulertzen zuela baina ez zuela hitz egiten adierazi zuen. Zirujau lanpostua ematen bazioten, ordea, denbora gutxiren barruan hitz egiteko gai izango zela erantsi zuen. Urte eta erdi iraun zuen Urrestillan; dimisioa aurkeztu zuen 1863an. Azpeitiar agintariek adierazi zuten sendagile berria aukeratzean lehentasuna izango zutela euskara zekitenek.

Eskolako maisua hautatu behar zuten herrian 1805ean. Lanpostua eskuratzeko bete beharreko baldintzen artean, agintariek garbi adierazi zuten derrigorrezkoa izango zela euskal hizkuntza jakitea. Najerako Melkiades de Oñate aurkeztu zen, baina azpeitiar agintariek erabaki zuten hura ez izendatzea, derrigorrezkoa zelako euskara ezagutu eta jakitea.

Garai bateko Azpeitia ▶ Angel Urretak kontatua

lanbide ugariko GIZONA

Hamabost urte zituela iritsi zen Azpeitira.

Nekazal maisua, tren gidaria eta Lagun

Onak-eko batzordekidea izan da urteotan

▶ Testua: **Maidar Zendoia**

Angel Urreta (Lezo, 1931) hamabost urte zituela iritsi zen Azpeitira, eta Oñatzen Zabale baserrian egon zen bizitzen hogeitaurtean. "Baserrian beti izaten zen zeregina: ganadua zaindu, baratza landu, etxeko lanak egin...".

Orduko bizimodua zeharo desberdina zela deritzo. "Ni Oñatzera iritsi nintzenean han ez zegoen ez biderik, ez urik, ezta argirik ere". Baserriira igotzeko erositako motoa bide erdian utzi behar izaten zuen aparkatuta, oraindik guttiz eraiki gabe zegoelako bidea. "1958an herrian hamar moto baino gutxiago zeuden; haietako bat neurea zen", dio.

Garbiketa kontuetaarako ere ura neurtu egin behar izaten zuten baserrian. "Urik ez zegoenez, balde batean izaten genuen urarekin moldatu behar izaten genuen. 35 urtera arte ez nuen dutxarrik ezagutu", gogoratzen du.

Urte haietan, hezkuntza sistema ere oso bestelakoa zen. "Nekazal maisua izan nintzen Oñatean".

“Oñatzera iritsi nintzenean han ez zegoen ez biderik, ez urik, ezta argirik ere”

ANGEL URRETA ▶ erretiratur



Zabale baserriaren aurrealdea, Oñatz auzoan. JUAN JOXE AGIRRE

tzen. Hiru urtetik hamaseira bitarko gazteei ematen nizkien klaseak, baina hura ez zegoela niretzat egina konturatu nintzen". Izan ere, Urretaren ustez, "oso zaila zen hain adin desberdineko jendeari irakastea".

▶ **LANBIDEAK.** Irakaskuntza utzi ondoren, Urolako Treneko gidaria izan zen. "Lanbide polita iruditzen zitzaidan, baina lanpostu hobea eskaini zidaten eta utzi egin behar izan nuen".

Dena dela, bere zaletasunarengatik da herrian ezaguna: futbola. Lagun Onak futbol klubeko batzordekidea izan zen urteetan. "Asko jarraitu izan dut herriko futbol taldearen ibilbidea". Futbolak une pozgarri asko biziara izan dizkiola dio Urretak. "Urte askoan lan egin izan dut Lagun Onak taldearentzat; hori izan da nire benetako afizioa".

Mikel Aranburu eta Mikel Labaka Realeko jokalarien hastapenak ere gogoan ditu. "Haiek gurekin hasi ziren futbolekin; oso jokari onak ziren".



Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztartaria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemai.)	81 26 32

Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

EAE-ANV	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztartaria Kultur Koor.	15 03 58

Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	943 08 06 88


Farmaziak ▶ abendua

GAUEZ

3-8-9-20	4-21	5-18	6-7-17-22-23	19	1-2-14-24-25-27	10-15-16-28
Alberdi (Azpeitia).	Garcia (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 81 59 74	943 81 12 74	943 81 13 50	943 08 02 58	943 81 19 49	943 85 19 66	943 85 06 60

EGUNEZ

1-2-13-19	3-8-9-14-20-24-26	4-10-15-16-21-25	5-12-18-29-30	6-7-11-17-22-23
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Garcia (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 81 19 49	943 81 59 74	943 81 12 74	943 81 13 50	943 08 02 58



GIDATZEKO ETA EHIZATZEKO GAINDITU BEHARREKOA.

Gidatzeko eta ehizatze baimenak lortzeko proba psikoteknikoa gainditu behar da. Aitonena I egoitzako hirugarren solairuan izaten da hitzordua ostegunero (18:30-20:30). Baimen zaharra, NA eta bi argazki eramanda, bertan kudeatzen dute ziurtagiri berria.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR	EUSKO TREN	GUIPUZCOANA	PESA	PIPER ELK.	TAXIAK
85 27 18	902 54 32 10	85 11 59	21 26 99	85 25 87	81 13 07

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

biur

arropa eta oinetako denda

biur.azp@euskalnet.es - Erdi kalea, z/g - Tel./Faxa: 943151809



erdi kalea. 4, behea

etxeko tresna txikiak
lanparak, erlojuak...

elektrizitate lanak

mugikorren birkarga
euskatel-amena
movistar
vodafone

abuztuan
goizetan zabalik

Tel. 943816284



Zuretzako
fruta eta barazkiak
bildu berri eta zaporetsuak

Bustinzuriko Errebala, 3-5 zk Tel. 943 08 06 32


Azpeitia
Kimu bat S.L.

Abuztuan zabalik

UROLAKO JARDINERITZA

AZPEITIA-URRESTILLA BIDEA - TFNO./ FAX: 943 15 00 85 20730 AZPEITIA



Ezkontza, ezkontza aurreko,
bataio, lehen jaunartze eta
era guztietako opariak


PARION

Santiago kalea, 14
699 325 839

www.oparion.com



bide
sukaldeak

Telf-Fax : 943 811747
Garmendipe kalea 7
Landeta Auzoa
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
bidesukaldeak@terra.es



Eraikin bat, pertsonaren nahiekin bat egiten duenean,
bere etxe bihurtzen da.

GRUPO ORMAK enpresak duen aurre-esperientziari proiektu
berri bat gehitzen zaionean emaitza San Juan 8 da, etxebizitzaren
multzo bikaina, Zestoako erdigunean kokatuta eta naturarekin
harreman zuzenean dagoen ingurune zoragarrian.

Zestoa

San Juan
sustaper



*zure etxebizitzarako
leku aproposa*

Argibidea eta salmentak:

943 424 430

www.ormak.es

Sustatzailea:

Eraikitzailea:



GABON ZORionTSuAK



Urbiltarte, 7 bajo • Tel. - Fax: 943 8137 87
e-mail: e.lagunak@wanadoo.es
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdiak:
943 15 16 40



Elikadura ekologikoa

Gehigarri dietetikoak

Ildefonso Gurrutxogo 1
TEL. 943 08 03 37



SALBE AUZUNEA 35
TEL. 943 15 12 87
20730 AZPEITIA

SANTO TOMAS EGUNEAN
ZATOZ ESTUDIOKO ARGAZKIA
ATERATZERA!

urke
ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK

ZALDIKO



ESTETIKA • OPARIK
SALBE, 15 BEHEA
TEL. 943 15 12 75
A Z P E I T I A

eta UrTE berri On!

LUCIA GERRIKO ▶ 100 urte beteko ditu abenduan

“Ez daukat ehun urte bizi izandako sentsaziorik”

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkiak: Maider Zendoia eta Elena Lizasok utzita



TXIKITAKO AMETSA.

Lucia Gerriko baserriko lanez arduratzen zen txikitan. “Egunerokotasunari begira bizi nintzen, ez nuen amets berezirik”. Hala ere, bere ilusioen artean ezkontzea eta familia osatzea zeudela dio. “Gaur egun, helburu hori lortu dudala esan dezaket”, dio Gerrikok.

Lucia Gerriko 1907ko abenduaren 13an jaio zen Azpeitian, Larrin baserrian. Ehun kandela itzaltzea tokatuko zaio aurtengo Santa Luzia egunean.

Ehun urte beteko dituzu abenduaren 13an. Badira urteak...

Egia esan behar badut, ez daukat ehun urte bizi izandako sentsaziorik.

Zein da trukua?

Goizero jaikitzea, baita gaizki egonda ere, eta lan asko egitea.

Nondik datorkizu kasta hori?

Oro har, genetika kontua dela esango nuke. Familiako beste kideek ere 80 urtetik gora harra-patu zituzten.

Mende batean aldaketa asko biziko zenituen. Zein izan da handiena?

Gaur eguneko egoera izan da bizi izan dudun aldaketarik gogorre-na. Buelta handia eman du munduak. Urrutira joan gabe, lehengo pezetak oraingo euroak baino gehiago balio zuen...

Urteotan herrian izan den gertaeraren bat aipatzekotan, zein aukeratuko zenuke?

Alfonso XIII. [Espainiako] errege-ak Urolako Trena inauguratu zuen eguna datorkit burura. ‘¡Viva el rey, viva la Diputación y viva el Tren de Urola!’; entzuten zen ka-lean.

Zein duzu eguneroko errutina?

09:00ak aldera jaikitzen naiz. Gosaldu ondoren egunkaria leitzen dut eta egunean zehar telebista ikustea gustukoa dut. Arratsalde bukaeran irratiko errosarioa eta meza entzuten ditut.

Atzetik datozen belaunaldiei zer aholku emango zenieke?

Ahal den bizio gutxiena izan eta erretiro onak egin ditzatela.

Etorkizunari zer eskatzen diozu?

Jaungoikoak nahi duenera arte bizitzea, okerrera egin gabe. ◀

Zaindu ▶ Zizareak

Julian
Bereziartua



Zizare mota asko egon arren, lurreko zizareez eta izainez bakarrik ariko gara. Izan ere, horiek dira pertsonentzako zizare ezagun eta probetxugarrienak.

Ornogabeak dira, txipiroiak eta marraskiloak bezala. Gorputz luzanga, bermiformea eta mukiz es-talia dute. Gainera, birsorkuntza-rako ahalmena dute; zati bat ken-duz gero, berriz ere sortzen zaie.

Sinestezinezko irentsi nahia dute; baratzetako eta belarkieta-ko lurra da oinarritzko elikagaia zizareentzat; izaintzat, berriz, abereen odola.

Elikatzeko lurrean zizareek egin ohi dituzten tunelek lurra oxigena-tzeko balio dute eta, bide batez, lurra ongarritu egiten dute. Hau-rra nintzenean amuarekin arran-tzatzeke bakarrik balio zutela uste izan nuen.

Izainek erreka eta aintziretako uretan dute bizilekua. Bentosa berezi baten bitartez itsasten dira odol beroko abereen azalean.

Urte luzeetan erabiliak izan dira sendakuntzan, *odol lodia* edo pi-liglobulia zutenen personentzat. Oraindik ere bada izainak erabil-tzen duenik, baina ni ez naiz siste-ma horren aldekoa. Ez zizarea eta ez izaina ez dira parasito garbiak, askotan zerbait ematen diotelako trukean biktimari.

Argi geratu den bezala, anelido horiek gure bizitzarako erabilga-riak dira.

MIREIA AMENABAR ▶ jostuna

Tradizioa ala modernitatea?

Berezitasuna, beti ere tradizioa jarraituta.

Zuri-beltza ala kolorea?

Kolorea.

Ehun bat.

Kotoia.

Estanpatu bat.

Loratua.

Puntuak ala arraiak?

Arraiak.

Kolore bat.

Gorria.

Janzkerak, josi ala erosi?

Neuk jositako baserritar jantzia nahiago dut.

Ohiko konponketa?

Barrenak eta petatxuak.

Josteko beharrezko elementuak?

Orratza eta haria.

Diseinatzaile bat.

Valentino.

Ukimena ala ikusmena da beharrezkoagoa?

Ikusmena, agian.

▶ Testua eta argazkia: Mainer Zendoia



Abizena ▶ Arrieta

Armarria.

Berde koloreko zuhaitza eta ba-surde beltza ageri dira erdian. Atzealdea urre kolorekoa da.

Banaketa semantikoa.

▶ 'Harri' hitzak eta '-eta' atzikiak osatzen dute abizena.

Esanahia.

'Harritza' edo 'sasitza' esan nahi du.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Azkoitia.
- ▶ Mutriku.
- ▶ Beasain.
- ▶ Zegama.
- ▶ Irun.
- ▶ Otxandio.
- ▶ Irun.
- ▶ Gasteiz.
- ▶ Baigorri.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Bergara (1647).
- ▶ Azkoitia (1692).
- ▶ Oiartzun (1695).
- ▶ Donostia (1696).
- ▶ Soraluze (1703).
- ▶ Elgoibar (1716).
- ▶ Segura (1757).
- ▶ Tolosa (1817).



Esandakoa ▶

“Diego Garciak Behobian irteteko animatzen ninduen; aurtan irten dut lehen aldiz, haren omenez”

MARTIN FIZ ▶
lasterkalaria

“Gustuko zerbaitetik bizitzeko aukera izango banu, antzerkia aukeratuko nuke”

ALAITZ OLAIZOLA ▶
antzerkiegilea

Zenbat ▶

159

LASTERKARI.

Azaroaren 11n izan zen Behobia-Donostia lasterketa eta 170 azpeitiarrek hartu zuten parte; bukatu, 159k.



domusa

Gertuko pasadizoa ▶

herriko musikarien AKADEMIA

**‘Juan de Antxieta Musika Eskola. 25 urte’
liburutik hartua ▶ Argitaratzailea: Musika
Eskola ▶ 2007 ▶ Egilea: Jose Ignacio Alberdi**

**KAPITULUA ▶ Azpeitiko hainbat
piano-irakasleren musika-ekimena
(13. orrialdea)**

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren bukaran, Milagros Aguirre, Maria Jesus Aguirre, Mari Sol Elorza, Maria Dolores Oteiza eta Maria Rosario Segurola Azpeitiko piano irakasleek euren etxeetan ematen zituzten solfeo eta piano eskola partikularrak.

Bestalde, hainbat ikastetxetan ere solfeo –eta piano– eskolak ematen zituzten. Musika-ko Akademian, Jose Maria Altuna eta Iñaki Alberdi (Azpeitiko Musika bandako zuzendaria eta zuzendariordea) bertako ikasleen prestakuntza espezifikoaz arduratzen ziren. Musika-

ren inguruko beste mugimendu batzuetara ere hainbat gazte hurbiltzen ziren musika ikastera. Horien artean daude, esate baterako, Tomas Geretak zuzentzen zuen “Ekaitza” solfeo eta txistu akademia, Amaia Garmendiaren gitara-eskolak, Begoña Gurrutxagaren esku-soinu-eskolak, Jose Maria Sagarzazuren “Izarraitx” txistulari-taldea eta baita “Itsasi” eta “Sahatsa” taldeek musika eta dantza arloan egiten zuten lana ere.

Musika ikasleak gero eta gehiago ziren eta, orduan ere, ugariago ziren neskak. Musika ikasketei jarraipen ofiziala eman nahi bazieten, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan matrikulatu behar ziren eta ikasturte

amaieran Donostiara joan behar izaten zuten azterketa egitera. Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan jende gehiegi matrikulatzen zela eta ikasturte amaierako azterketari behar bezala aurre egitea ezinezkoa zela ikusita, Kontserbatorioak berak jarri zuen abian ikasleak deszentralizatzeko plana. Lehenengo fasean, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren akademia filialak sortu ziren Arrasate, Beasain, Errenteria eta Andoain herrietan.

Garai hartan, Azpeitiko Musika taldearekin lotura nuen eta, aldi berean, garai hartako Donostiako Udal Aurrezki Kutxaren eta gaur egungo Kutxaren Obra Soziokulturala zen Enparan Dorretxeko Kultura Saileko (1978-1989) arduraduna nintzen, maiz izaten nituen musika gaiet buruzko harremanak herriko hainbat musika irakasleekin. Irakasleek harreman estua zuten Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioarekin eta, ondorioz, informazio pribilegiatua akademia filialei buruz. Gai hori aipatu zidatenean, seme-alaben musika ikasketak euren esku uzten zituzten familiei aukera interesgarri hori jakinarazi behar zietela azaldu nien. Azpeitia ezin zen baztertua geratu musika ikasketen arloan probintzian sortzen ari ziren mugimendu berrietatik. ◀



 **ostadar optika**
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17 Ibai Ondo, 28
Tel. 943-810664 Tel. 943-850445
AZPEITIA AZKOITIA

 **Otamendi**
Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

 **PILDAIN**
Inmobiliaria
www.pildain.com

Harzuba 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

 **CAJA LABORAL**
EUSKADIKO KUTXA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81


 **PEUGEOT**

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

 **kutxa**

Hitz gezidunak ►




* Azpeitiar kazetaria

Hitz gurutzatua ►


EZKER ESKUIN. 1. Ez militar. 2. Lau zati lau. Gipuzkoan, zain. 3. Euskal sindikatu abertzalea. Ez txiki, ez ertain. 4. Hego Euskal Herriko alderdi politikoa. Indioaren ikur kimikoa. 5. Röntgen. Gorpilik gabeko gurdiak. Kontsonantea. 6. Musika nota. Hondo handikoa. 7. Esan, hitzez adierazi. Etorri aditzaren erroa. 8. Korrikaren antolatzailea. Leku horretan. 9. Maiz, askotan.

GOITIK BEHERA. 1. Soro. 2. Presio unitate. Modua. 3. Ez estu. Katalanez, deus ez. 4. Idi, hitz elkartzeetan. Bortzirietako herria, Nafarroan. 5. Boroaren ikur kimikoa. Ibar, bailara. Kontsonantea. 6. Maindireak, mihiseak. Ahari, bokalik gabe. 7. Behar egiteko. Landare mota. 8. Zezen zikiratu. Galdetzaille bat. 9. Sasoi.



Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN AZAROKO ARGAZKI LEHIAKETA



Eva Arregi Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 89. irabazlea. **Urrats** dendako oparia irabazi du sari gisa. Argazkian, Eva Arregi –eskubian– eta Urratseko dendaria.

Zein da hau? ▶



ERANTZUTEKO EPEA ▶

Abenduak 14 (ostirala)

NORABIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

NORDEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Irede Estetika zentroko zerbitzua

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrrian bazkide izan behar da

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

ORDULARI

Jose de Artelxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

MARIA JESUS ARANBURU ▶ Gipuzkoako Euskara eta Kultura diputatua

“Azpeitian euskaraz bizi daiteke, baina badago zer landu”

▶ Testua eta argazkia: Maider Zendoia



Maria Jesus Aranburu (Azpeitia, 59 urte) Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatu izendatu dute 2007-2011 agintaldirako. Eguneroko egitekoa hasi aurretik izan genuen harekin solasaldia, Uztarriaren egoitzan.

Irakaskuntza eta politika izan dira zure ibilbideko bi lan ildoak. Non sentitzen zara erosoago?

Nik uste dut Euskal Herrian, guri bizitzea tokatu zaigun garaian batik bat, politika erabat lotuta dagoela sentimenduekin. Aberzale sentimendua, aberriarekiko eta gure herriarekiko maitasun berezi hori, une batzuetan lana eta ardura bihurtzen da. Hori da politika. Dena dela, irakaskuntzak nire bizitzan politikarekin zerikusi handia izan du. Ikastolaren sorreran egon nintzen, eta horrek herri honekiko aitortza nahia eta burujabetza nahia lotzen ditu. Beraz, nik uste dut nire bizitzan beti egon dela Euskal Herriarekiko eta gizartearekiko zerbitzu nahia. Puntu horretan lotu dira irakaskuntza eta politikagintza.

Zinegotzi izana zara Azpeitian. Herri mailako politika eskola ona al da Gipuzkoa mailakoa garatzeko?

Zalantzarik gabe! Udalean zinegotzi egoteak ikaragarri erakusten du. Gizartearekin harreman zuzena izateak poz handiak ematen ditu, baina baita buruko minak ere... Zinegotzi izatea politikagintzako batxilergoa egitea bezala da. Beste zenbait tokitako ateak irekitzen dizkizu eta prestakuntza ona ematen dizu.

Gaur egun, begirada orokorrak uzten al dizu herri mailako ekimenak sustatzen?

Foru Aldundian egoteak beste plano batera eramaten zaitu.

Ikuspegi orokorra izan behar duzu Gipuzkoaz, betiere udalen autonomia errespetatuta.

Kultur arloan aritutakoa zara politikari. Erronka izan al da euskara alorrean murgiltzea?

Euskara Zuzendaritza sail desberdinetan egon izan da Gipuzkoako Foru Aldundian. Ondorioz, Kultura Sailean egon izan naizenean harreman zuzena izan dut euskararen alorrearekin. Euskal Herriko kultura ezin dut euskararik gabe ulertu. Denok, euskaraz dakigunok eta ez dakitenek, euskara mintzatu eta maitatu behar dugu, geure ondare nagusia delako.

Legealdi berrira begira, euskara zure saileko "oinarrizko lan ildo" izango dela esan duzu. Erakunde barruan eragingo al du aurrea erabakiak?

Gipuzkoa lurralde eredugarria da eta Foru Aldundiak kopeta altuarekin esan dezake ahalegin ikargarria egin duela zentzu horretan. Gaur egun, 1.800 langile ditu Diputazioak, eta gero eta gehiagok lan egiten dute euskaraz. Langilegoaren %55ek edo %65ek euskaraz lan egiten dute. Kopurua handitu nahi dugu, jakina, baina behartu gabe. Euskara maitatu egin behar da, ezin da inposatu.

Herriari dagokionez, nola ikusten duzu euskararen egoera Azpeitian?

Azpeitiarra eta euskara, lotutako binomioa da. Dena dela, beti dago zerbait gehiago egiteko. Hizketarako ez daukagu inolako arazorik, eta geure eguneroko bizitza euskaraz egin dezakegu gutxieneko borondatea izanda. Hala ere, badaude eremubatzuk oraindik ere gaztelarekin identifikatzen ditugunak: lan mundua, telebista katearen aukeraketa, liburuak irakurketa... Inork ez du zailtasun jartzen Azpeitian euskaraz bizi daitekeenik. Dena dela, oraindik badaude landu beharreko eremuak.

Urte hasieran kaleratutako neurketan, Kontseiluak Udalerrien Hizkuntza Politika neur-



“Euskararen normalizazioan bi planen arteko elkarlana egotea behar-beharrezkoa da”

“Azpeitiko Udala UEMAn sartzeak zer suposatzen du, EUDELetik ateratzea? Ez zait egokia iruditzen”

Ibilbidea

1983-1987. Kultura zinegotzia Azpeitiko Udalean.

1991-1995. Kultura Saileko foru diputatua Gipuzkoan.

1995-1999. Gizarte Ekintzako zuzendari orokorra Gipuzkoan.

1999-2003. Kultura Saileko zuzendari orokorra Gipuzkoan.

2007-2011. Euskara eta Kultura Saileko diputatua.

tzeko egindako azterketan Azpeitiak lehen postua lortu zuen. Zein da zure irakurketa?

Batetik, zorionak. Bestetik, ez lo hartu. Eta, azkenik, aurrera jarraitu, beti dagoelako zerbait egiteko eta lantzeko. Herritarrek eta kanpotarrek ikus dezatela euskaraz bizi daitekeela Azpeitian.

Euskararen normalizazioari begira, Azpeitian bi plan daude abian: Bai Euskarari Akordioa

eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Zein izango litzateke bi planak bateratzeko modua?

Nik uste dut egoera hori alor desberdinetan eman izan dela gure herrian. Batetik, giza mugimendu indartsua dago eta, bestetik, erakunde indartsuak ditugu. Zenbait unetan, bakoitzaren kezken eta aurrerapausoak eman nahiaren ondorioz, plan guztiak bikoiztu egiten dira. Hori gure herriaren ezaugarria da; ez da onena, baina baditu bere alde onak. Giza mugimenduak politikariak mugiarazten ditu eta beste ikuspegi bat hartzeko aukera ematen die. Hala ere, akatsak ere baditu, indarrak sakabanatu egiten direlako. Nire ustez, bi planen arteko elkarlana egotea behar-beharrezkoa da.

Osagarriak al dira bi planak?

Helburu bera dute, baina helburu horretara iristeko modua desberdina da. Modu desberdin horiek koordinatuta lan egitea denentzat izan daiteke aberatsa.

Zein da euskalgintzaren egitekoa euskararen normalizazioan?

Erakundeek eta elkarteek gauza asko proposatu edo egin ditzakete. Ondoren, herritar bakoitzak ez badu hori bereganatu eta aurrera eramaten, oso makal egingo dugu aurrera. Euskararekiko jarraera norberarena da aurrea; ondoren etorriko dira erakunde eta elkarten laguntzak.

Azpeitiko Udala Udalerrri Eus-kaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzearen aldekoa al zara?

UEMA elkarteak sortu zenean, helburu zehatza zuen: euskaraz lan egiten zuten herri txikiek elkarren arteko indarrak batu eta ahaleginak bateratzea. Egia da herri handiagoak ere sartzen joan zirela. Dena dela, urte batzuetan lokartuta bezala egon da erakundea. Itxura denez, orain berriz ere berritu egin nahi dute. Niri ondo iruditzen zait udalek, euskaraz bizitzeko egitasmoa badute, batzuen eta besteen arteko esperientziak trukatu eta elkarrekin lana egitea. Baina udal horrek, euskaraz bizitzeari gain, kudeatu beharreko beste zenbait eremu ere baditu. Kudeaketa maila horretan, zalan-tzarik gabe, indarrak batuta gauzak hobeto egin daitezke. Dena dela, nik ez dut uste UEMAk Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) aurka egon behar denik. Ez zait iruditzen bata edo bestearen artean aukeratu behar denik. Azpeitiko Udala UEMAn sartzeak zer suposatzen du, EUDELetik ateratzea? Ez zait egokia iruditzen.

Zer iritzi duzu Keith Johnsonek The Wall Street Journal egunkarian idatzitako artikulua? Euskara inposatu egiten dela dio, ez duela hizkuntza gisa balio...

Gauza horiek ez dira izaten kasualitateak. Esaten dituen gauzekin ez nago batere ados. Dagoeneko nahiko erantzun eman dizkiote. Onena da Johnsoni eta beste edozeini ekintzekin erakustea esaten duena faltsua dela.

Johnson asko al ditugu?

Bai, Euskal Herrian bertan ere baditugu. Hark esandakoa erreallitatea izatea nahi dutenei esan behar diegu hori ez dela hala. Euskara bizirik dagoela eta euskarak –beste edozein hizkuntzak bezala– ikasteko, ikertzeko, dibertitzeko, maitatzeko eta sentimenduak adierazteko balio digula adierazi behar diegu. ◀

Euskararen gorabeherak ▶



OLENTZERO POSTA-TXARTELAK
Olentzero eta Eguberri-ohiturak agertzen dituzten posta-txartelak. Zorion-mezua ez ezik informazio testua ere badaramate atzealdean. 6 postaleko lotea. 3,00 €

OLENTZERO HORMA-IRUDIA, 70X50 cm.-ko horma-irudia. Glasfonatu matea. 3,20 €

OLENTZERO NEW YORKEN (3+)
Testu desberdin bi, haurraren gailasunaren arabera bata ala bestea irakurtzeko. Letra larria testu laburretan. Jarduera pedagogikoak eskaintzen dira. 2,70 €

OLENTZERO ELEKTROESTATIKOA, 21x27 cm. Kristalaren albo bietatik ikus daiteke irudia. Behin eta berriro erabiltzeko. 4,20 €

GORA. Euskaraz aritzea, oparirik ederrena

Olentzero, lagun ezkutua... Opariak erosteko amu gozoak eskaintzen dituzte iragarkietan. Geure ohiturak eta euskara sustatzea, hori bai erregala ederra!

BEHERA. Euskarazko iragarkien gose

Gabonak badatoz eta, ondorioz, janariei buruzko iragarkiak ugaritu egin dira. Euskara ez den hizkuntzean eskainitako jakiek, ordea, ezin ase euskaltzalea.



LIDL
www.lidl.es

...a partir del **Jueves 08** **NOVIEMBRE**

CARNE FRESCA

hasta un **30%** **¡más barato!**

CONEJO **ALITAS**

Euskararen eskubideen urraketak salatze / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

www.euskararentelefonoa.com

Elebide 012

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Euskarazko informazio iturriak aukeratu itzazu”

Euskal Herrian Euskarazen 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrarian dago edonoren eskura

Bota lasai ▶

Ri esgo

Lehenengoan bueltaxka bat eman nuen Urolako museo-treanean kanpoko lagun batzuekin, eta bagoi batean kartel txikia zera batez: Arrisku garria. Gaztelerazkoa ez zegoen: *Ri esgo* edo *Ries go*. Pena...
▶ **Enekoitz Esnaola**

Iritzi horren erantzunak

'Euskal' Museoa

Gu ere asteburuan egon gara Azpeitian. Hamabi lagun joan gara Eibartik, denok euskaldunak. Tren barruan gure inguruan zeuden gehienak ere euskaldunak ziren. Hala ere:

▶ Tren barruko azalpenak lehenengo erdaraz, eta gero euskaraz. Haurrei ere lehenengo erdaraz.

▶ Lasaora heldu, eta makinistak hamar minutuko azalpenak eman zituen. Erdaraz.

▶ Museora itzuli eta tren artean zebilen gizon batek esan zigun museoa itxita zegoela. Tira, "está cerrado", esan zigun. Hortik aurrerako azalpenak ere erdaraz.

Eta hori guztiori, non? Segovian? Ez, Azpeitian, eta Burdinbidearen 'Euskal' Museoa.

Harrigarria, aizuek.

▶ **A. Sarasua**

www.uztarria.com/hizkuntza
eskubideak-en emandako iritziak



HAMAR ARRAZOI **Lasao** ALTZARI BAT AUKERATZEKO:

- 1.- **Zurezkoa**: garapen jasagarria duten basoetako gaztainondo, haritz eta gereziendo trinkoaz baliatzen gara beti. % 100 egur trinkoen aukera.
- 2.- **Ingurugiroari begirunea** langintza osoan. ISO 14001, kutsadura zero.
- 3.- **Ekodiseinua**: modelu berrien sorreran ekologi iritziak erabiltzen ditugu: pisuaren, arintasunaren, hondakinen eta argindarraren gutxitzean oinarrituta.
- 4.- **Amaiera garbiak**: berniz ureztatuak (bitxilore ekologikoa dutelarik), baita olio biodegradarri naturalekin ere.
- 5.- **Kalitate handiko altzaria**: ISO 9001.
- 6.- **Bermea**: azokako handiena dugu; 5 urte. Nahiz eta iraupen luzerako altzariak izan. Agian ondorengoek ere hor izango dituzte.
- 7.- **Begirune soziala**: % 100 lan postu finkoak. Kontu txinorik gabe. Umeekin fabrikatu gabe (kate handiak?).
- 8.- **Prezio ekologikoak**: lantegitik zuzenean bitartekorik gabe.
- 9.- **Ordaintzeko erraztasuna**: 60 hilabetan patxadaz ordaintzeko aukera.
- 10.- **Erosketa eroso**: erakusketa Azpeitian.


D&G

DOLCE & GABBANA

TIME



plaza txiki, 7
Tel.: 943 81 23 67



Santi Lazkano Kirolak



udazkena negua 2007-2008

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50